

...eta

Kittó!

921 zkia.
2015-11-27

Euskera ahora



**Catalana
Occidente**
Grupo asegurador

150 URTE zure
etorkizunean
pentsatzen

(Emilio de los Toyos)
Erreg. zkia. C046815351532K

DENETARIKO ASEGURUAK

- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun aseguruua
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Faxa. 943 702 206
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@catalanaoccidente.com



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Martxoaren 4an, 19.30etan, hasiko da Portalean, Policlinica Gipuzkoako Osasun Ikasgeletako hitzaldi zikloa. Lehenengoak izenburu hau izango du: **“Zaindu zure bihotza. Ezagutu bihotz errehabilitazio zuzena egitearen garrantzia eta zure bihotzak osasuntsu jarraitzeko aholkuak”**. Bihotz errehabilitazio taldeko kideak emango dute hitzaldia: Laura Quintas doktore kardiologoak, Javier Muñoz Ariketa Fisikoan lizentziatua eta fisioterapeutak, Ainitze Bolinaga fisioterapeutak, Aurora Cid nutrizionistak eta Edurne Izagirre psikologoak.

Telefona: **943 00 28 00**
www.policlinicagipuzkoa.com



Eibarko bihotz errehabilitazio zerbitzuko Laura Quintas kardiologoak eta Javier Muñoz Ariketa Fisikoan lizentziatua eta fisioterapeuta.

Eibarko Policlinica Gipuzkoako zentroak Bihotz Errehabilitazio zerbitzu berria du

Bihotz errehabilitazio programen oinarriko helburua da gaixoei laguntzea ahal den bitzta normalena eta ahal den azkarren berreskuratzen bihotz gaixotasunak eragin dakizkion mugen barruan, eta hobekuntza fisikoa, psikologikoa eta sozialaren bila. Bihotz arazoak dituzten gaixoentzat ez ezik, kardiopatia arloko familia aurrekariak dituztenentzat ere bada programa.

Eibarko bihotz errehabilitazio zerbitzuko arduradun Laura Quintas kardiologoak argitzen duenez, *“zerbitzuak garrantzi handiko onurak dakartza maila kardiobaskularrean: bihotz frekuentziaren eta presio arterialaren gutxitzea, sintomatologiatik aske gaixoak egin dezakeen ariketa fisikoaren mailaren gehitzea eta, gainera, arrisku kardiobaskularren faktoreak hobeto kontrolatzen laguntzen du, presio arterialaren eta gorputz koipearen murriztearekin batera”*.

Errehabilitazioa egiteko, gaixoei kirol erroparekin aurkeztuko dira ariketa hasi baino 10 minutu lehenago eta mugikortasun artikularreko ariketen protokoloa eginez hasiko dira. Jarraian, Javier Muñoz fisioterapeutak euren bihotz frekuentzia eta presio arteriala monitorizatu ondoren, 20 eta 45 minuturen arteko entrenamendu saioa egingo dute zikloergometroan. *“Ariketa Fisikoan eta Kirolean lizentziatu batek banaka agindutako karga protokoloari jarraituta pro-*

gramatuko da zikloergometroa, patologiaren eta hasieran egindako esfortzuaren probaren arabera” ziurtatzen du Javier fisioterapeutak. Behin entrenamendu aerobikoa amaituta, gaixoak gihar multzo handiko indar ariketak egingo ditu hainbat materialekin, zientzi ikerketetan erakutsi baita zelako garrantzia duen indar lanak kardiopatiak dituzten gaixoengan. Amaitzeko, gutxi gorabeherako 10 minutuko fasea egingo dute barealdira bueltatzeko, hor gihar multzokako luzaketa orokorrak egiteko.

Diziplina anitzeko taldea

Bihotz errehabilitaziorako taldea diziplina anitzeko hainbat lagunek osatzen dute: kardiologian espezializatutako sendagileak hasierako balorazio klinikoa egiten du, esfortzu proba barne duena, hortik ariketa egokiaren mota programatzeko, eraginkor eta segurua izan dadin. Ariketa Fisikoan eta Kirolean lizentziatuak ariketa fisikoaren mota, intentsitatea, iraupena eta gaixoak egin behar dituen kargak agintzen ditu. Fisioterapeutak ariketa-programa zuzendu eta kontrolatzen du. Dietista-nutrizionistak elikadura orekatua izateko ohituren inguruan aholkuak ematen dio gaixoari. Eta psikologo klinikoak bihotz arazoa jasan izateak dakarren antsietate edo depresioa kontrolatzen laguntzen du.

HITZALDIA:

“Zaindu zure bihotza. Ezagutu egizuz bihotz errehabilitazio zuzena egitearen garrantzia eta zure bihotzak osasuntsu jarraitzeko aholkuak”

**OSASUN
IKASGELAK**
POLICLINICA GIPUZKOA



DATA Martxoaren 4an **ORDUA** 19.30 h

TOPALEKUA
Eibarko Portalea
Udal Kultur Etxea

sartera
DOAN



POLICLINICA GIPUZKOA

www.policlinicagipuzkoa.com

ASTEAN ESANAK

"Seguru nago mundu gerretan Nobel sari pila bat hil direla, nork daki, beharbada minbiziaren aurkako sendagaiak asmatuko zituztenak, baina gerran hil ziren eta ez zuten horretara iristeko ikerketarik egiterik izan. Gizateriak izugarri galdu du"

(UNAI ELORRIAGA,
IDAZLEA)

"Txoriak zeruan forma geometriko bereziak, elastikoak marrazten dituzte. Eta gure kasuan, taberna huts bat betetzeko prozesuan, izkinak dira okupatzen lehenak, besteekiko distantzia maximoa duten tokiak. Eta erdiko puntua betetzen da ondoren. Gu ere jende saldoa gara azken finean, eta txori saldoa ginatete baldin eta hegan egin ahalko bagenu."

(ANDER GORTAZAR,
ARKITEKTOA)

"Intensitatez jokatzera zaila dago Espainiako Ligan, epaileek erritimoa mozteko joera dutelako. Hori bai, Realak baloiarekin maila handiagoa zuela uste nuen. Zer nahi dute gure zaletuek? Champions-ean jardutea harrobiko hiru-lau jokalarirekin ala 14. postuan sailkatzea Zubietako jokalariekin?"

(DAVID MOYES,
ENTRENATZAILEA)

"Sekulako ameskeria litzateke inork Errusia militarri gaitzitu eta haren kontrako presioa egin dezakeela pentsatzea; abentura guztietan erantzuten dakigu"

(VLADIMIR PUTIN,
ERRUSIAKO PRESIDENTEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KIRTENGO.- Astako, astakirten. "Tira, kirtengo. Oindiok telebisiñua zer dan ez dakik?"

KISKALDU.- Erabat erre. "Gaurko euzkixakin kiskaldu naiz Arratera igotzen".

KISKETE JO.- Kriskitin egin, hatzamar puntekin hotsa atera. "Jesus jaio da ta jo deigun kiskete!"

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitzke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Lorea Martinek eraman du saria

Aratosteen inguruan ...eta kitto! aldizkariak antolatutako lehiaketan saria, ...eta kitto!-ren kamiseta eta sudadera bana, Lorea Martinek irabazi du. Parte hartzeko aldizkarian publizitatea ipini zuten tabernen artean gustokoena zein zen esatea eskatu genizuen eta, sare sozialen bitartez zein aldizkariko kupoia beteta parte hartu duzuenen artean, denetarik iritziak helarazi dizkiguzue. Irabazleak Katu Kale aukeratu zuen eta sari bila ama bidali zuen astelehenean. Eskerrik asko parte hartzera animatu zareten guztiei eta irabazleari, berriz, zorionak! **Argazkian Mari Carmen, Lorearen ama, saria jasotzen.**



ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ana Aizpurua
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Azokia Urkizuko parke bixetan

Nahi dabenak denporan atzera egitteko aukeria eukiko dau, Urkizuko parke bixetan 60, 70 eta 80. hamarkaderi eskinduta zabaldu daben ferixari esker. Gaurtik hasitta eta domekara arte jateko eta artisautzako produktuak salduko dittuen 25 bat postu zabalduko dittue eta danak aittatutako urtietako ele-

mentuekin apainduta egongo dira. Horrekin batera, umiendako puzgarrri eta barrakak be egongo dira eta, azokia martxan dagan bittartian, Urkizura doiazenendako hainbat jardue- ra osagarri antolatu dittue. Gaur 18.00etan Nacho maguak eskinduko daben ikuskizunarekin ekingo detse programiari.



Gaur hasi eta domekara arte iraungo dau azokak. SILBIA HERNANDEZ



Zapetu gabian Belkoko alkohoi dana hustu ondoren, igande goxian edandakua izerditzeko asmuaz zure lagun mendizalakin jua zaramendira. Izerditan bila, arnasestuzko, laguna txapa ederra emoten... majo damutu zaramendira jua izozaz. Baina bueno, buako txori ico eta salidak aha!eg inasar ituko dabela pentsatzen dozu. Azkeneko kurbia emonta... TABERNA ITXITA!! Atara barruko maltoa!a guzka!

Irain lehiaketia martxan

Gazte Asanbladakuak "kaleko euskeria sortu eta erabiltze aldera" irain lehiaketia antolatu dabe. Marrazki bidez hasarria eragiten daben lau egoera irudikatu dittue eta, lehiaketan parte hartu nahi daben jendiari hórretako bakotxaren aurrir burura etortzen jakon esaldirik gogokuena botatzia eskatzen detse: "Ahal dala Eibarko euskalkixa erabilli, hitanua be bai, eta lehendikan sortuta daguazen iraiñak erabiltzia baiño bari- xak asmatzia da helburua, holan egunerokotasu- nian erabiltzeko moduko baliabide bari- xak eukitzeko". Asmatutako esaldixa paper zati batian idatzi, zein egoerari lotutakua dan ziheztu eta hainbat tabernatan laga dittuen kutxetan sartu leike edo, bestela, eibarko_gazte_asanbla- da@hotmail.com helbidera bialdu. Iraiñak en- tregatzeko azken eguna martxuaren 5a izango da. Behin lehiaketia amaituta, gala formatuko sari banaketa ekitaldixa egingo dabe martxuaren 6xan, gabian. Antolatzailliak aurreratu dabenez, irain esanguratsuenekin antzerkixa egingo da, "eguneroko bizitzan zelan erabilli leikiazen iku- si eta ikasi ahal izateko".

Irudi bizidunak bisitan

Aurreko barixakuan, azken hamahiru urtietan egindakuaren bidetik, atzera be giza-irudixak Untzagan eta Toribio Etxebarria kalia ikusteko aukeria euki gen- duan, Bartzelonako MPC-ko antzezliak 38.



Irudi bizidunek ere udaltzainen aginduak jarraitu zituzten. LEIRE ITURBE

Antzerki Jardunaldi- xen egitarauari ekite- ko eskindu eben era- kustaldixan. Aurtengo saiuan eguraldixak ez zetsen larregi lagun- du, arratsalde osuan euri zaparradak jua etorrixan ibilli ziran eta, baiña edozelan be aktoriak gurera ekarrittako persona- jien azalian sartzeko moldatu ziran.

...eta kitto!-ren urteko batzarra



Martxuaren 12xan, eguenian, egingo da batzar orokorra. SILBIA HERNANDEZ

Estatutuetan jasotakuari jarraituta, ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzar nagusixa egingo dau datorren martxuaren 12xan (eguenian), alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairu- artian). Lehen deialdixa 19.00etan izango da eta, ordurako bazkidien er- dixxa baiño gitxiago agertu ezkeru, egun berian ordu erdi geruago, 19.30xetan egingo da batzarra, berta- ratzen dan bazkide kopurua edozein dala be. Egunerako gai-zerrendia hauxe da: 2014ko gestiño-balan- zia; 2015erako egitasmuak, bazkide ku- otak eta aurrekontuak; galdera-eran- tzunak eta iradokizunak; zuzendarit- za bari- xaren hautaketia eta funtzio- namendua; eta piskolabisa.

Lurraldebus-en zerbitzu barrixak martxuaren 1etik aurrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako parte-hartze prozesuan jaso zittuen ekarpen eta eskaerieri erantzun nahixan, Debabarreneko autobus zerbitzuetan aldaketak sartuko dira indarrian martxuaren 1ian. Gure eskualdian hamabi linea arrunt eta gabeko hiru dagoz mar-



Linea barrixen artian Eibar eta Oñati lotzen dituen zerbitzua dago.

txan eta, kanbixuak indarrian sartziarekin batera, hónetxek izango dira aldaketen ezaugarri nagusiak: linea nagusiñak 06.00etatik 22.00ak bittartian ibilliko dira lanegunetan eta barixakuetan, barriz, gabeko azken autobusak 01:00ian izango dira hainbat kasutan. Horrekin batera Mendaroko ospitaletarako konexiñuak hobetu egingo dira eta gauza bera gertatuko da Debagoienarako eta Urola Erdirako loturekin.

Eibar Kantuan, zapatu gabian ETB1-n

Bixar 22.00etan, iaz Astelena frontoiak hartu eban Eibar Kantuan jaialdixa ikusteko aukeria egongo da ETB1-ian, orduan grabau eben saiuu atzera be emitiduko dabe eta. Hego Amerikako doiñueri eskindutako jaialdixaren azken ediziñuan Eibarko Mariatxixak, Mikel Urkolak, Saras y Lisol-ek, Voces y Cuerdas-ek, Duo Plaentxik eta Trio Medianoche hartu eben parte, Eibarko Txirrindulari Elkarteari laguntzeko asmuarekin antolatu zan ekitaldixan.



Langabetuendako ikastaroa

Debegesak lan barik daguazendako prestakuntza eta praktikak uztartuko dittuan ikastarua eskinduko dau martxotik aurrera. Azaldu dabenez, eraginkortasun energetikuan eta enpresa lehiakortasunian preparatzeko ikastarua izango da eta parte hartzen dabena tratamendu termiko eta metalen estaldurara bideratutako enpresetan lan praktikak egingo dittue. Interesa dakanak martxuaren 3a baiño lehen izena emon biharko dau, Lanbideren bittartez. Klase teorikuak Debegesan izango dira, martxuaren 9xan hasitta eta lan praktikak, barriz, lau hillebetekuak (apirilletik uztaillera bittartekuak). Gehixen jota 10 laguneko taldia osatuko dabe.



autuan

MERKEALDI BEREZIXAK

Zona Diez osatzen dabene dendak beherapen berezixak eskinduko dittue datorren astian, eguaztenian hasi eta zapatara arte (martxuaren 4tik 7ra bittartian). Holan, promozio berezixekin neguari agur esan eta udabarrixari ongietorrixia emon nahi detse eta, gaiñera, zeozer erosten dabene artian ekitaldixarekin bat egitten dabene dendetan gastatzeko erosketatxartela zozketatuko dabe.

INPRESIONISMUAN TREBATZEN

Bittor Sarasketa kalia dagan Itzamna akademixuak inpresionismuaren gaiñian ikasi nahi dabene helduendako klase teoriko-praktikuak antolatu dittu (euskeraz eta gazteleraz), martxuaren 21 edo 24rako, 10.30etatik 13.30etara. Taldia osatzeko gitxienez bost lagun alkartu biharko dira eta saiuaren prezia 15 eurokoa da. Izena emoteko azken eguna martxuaren 13a izango da. Informaziño gehixagorako 943255001 telefono zenbakira deittu leike.

GATXIZENERI BOTUA

Eibarko gatxizenik gustokuena aukeratzeko lehiaketara presentau dittuen 90 proposamenen artian bat aukeratu eta botua emoteko azken eguna domeka, martxuaren 1a izango da. Horretarako www.eibarko-euskara.com helbidian sartu eta, nahi dabene irakortzeko moduan ipiñi dabene gatxizen-zerrendia irakorri eta gero, aukeratutako berbiaren aldamenian klikatuta emoten da botua. Animatu, parte hartzia oso erreza da eta!

JOSE LUIS RUIZ OLEA

(2015eko otsailaren 22an hil zen, 73 urterekin)



Orain artean GUREKIN zeunden, hemendik aurrera GUGAN.

Eskerrik asko guruz ondoan egon zareteñoi



asteko
14.783
datua

auto gidari dagoz gure herrixan, biztanlion %53,88. Hau da, biztanlien erdittik gora dauka gidatzeko karneta. Gure udaltzainak, bestalde, urte baten puntuak kentzeko 79 zigor ipiñi dittue, 282 puntukin: bataz beste, 3,57.



Erropak erosteko aukera dago Deporrek bulegoetan.

Euskal Jaixaren 50. urteurrenaren materixala salgai

Maiatzaren azken asteburuan urrezko ezteiak ospatuko dituan Eibarko Euskal Jaixak ekimen berezixak antolatzen dihardu horren inguruan. Holan, datorren astian rifak saltzen hasiko dira eta baita materixala be, kamisetak, sudaderak eta txamarrak tartian. Erosteko Deporrek bulegotik pasau zeinkie, astelehen eta eguaztenetan, 19.00etatik 20.30etara.

Hasi dira Gerra Zibillaren zentrura bisitak

Urtarrillaren 31n Arrateko kolonixan inauguratu zan Eibarko Gerra Zibillaren interpretaziño zentrua ezagutzeko bisitak eta ibillaldi gidatuak hasitta dagoz eta, aurreko asteburuan egindakuen bidetik, bixar be hainbat lagunek zentrua bertatik bertara ezagutzeko aukeria eukiko dabe. Datozen zapatuetan be programa hórri segiduko detse (martxuaren 7xan euskeraz eta 14an gaztelerez). Edozelan be, bisitetan parte hartzeko tokirik ez daguala gogorarazi nahi dabe arduradunak, izen-emoteko epia zabaldu eta segiduan toki guztiak bete ziran eta. Halanda be, jendiak holako interes haundixa dakala ikusitta, aurrerago be beste talde batzurekin bisita gehixago egitteko asmua dakela aurreratu dabe.

Ererikuak prebenitzeko taillar barrixak

Zahartzaroko ererikuak prebenitzeko asmuarekin urtarrilla eta otsaillian egin diran taillarrek euki daben arrakasta ikusitta, programako arduradunak saio gehixago eskintzia erabagi dabe; holan amaittu barri diran taillarretan toki barrik geratu ziranak apirilla bittartian emongo diran zortzi saietako batian izena emoteko aukeria euki deixen. Lehelengo taillarra astelehenian hasiko da (saiuak martxuaren 2xan eta 9xan izango dira, gaztelerez, Beheko Tokia jubilau etxian) eta oindiok toki batzuk badagoz; martxuaren 23an eta 30ian Untzagako jubilau etxian emongo dittuenak, barriz, euskeraz izango dira; eta apirillaren 13an eta 20xan be Untzagako jubilau etxian jardungo



Oiñ arteko taillarrak eskindu daben sendagille taldiak emongo dittu hurrengokuak be.

dabe (gaztelerez, toki guztiak beteta dagoz). Saio guztiak 16.30xetan hasi eta 18.00etan amaittuko dira eta izena emoteko 943201074 telefonora deittu bihar da, astelehenetik barixakura (15.00ak arte).

Udaleko Gizartekintza eta Kiroletako Saillak, Osakidetza osasun zentruarekin eta

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Saillarekin batera antolatu dittuen saiuak 64 urtetik gorakuendako zein euren senide eta zaintzailliendako pentsauta dagoz eta, asmo nagusixa, hainbat aholku eta informaziño emonda, jendia lurrera erortzia eta beste arrisku batzuk saihestia da.

“Ondo egindako Lana” II. Jardunaldixa Armerixan

Armerixa Eskolako Ikasle Ohien alkartiak antolatuta, datorren asteko eguaztenian "Ondo Egin-dako Lana" II. Jardunaldixa hartuko dau Armerixako areto nagusixak, 09.00etan hasi eta 13.30xak bittartian. Datorren asteko ekitaldixa "Debabarrena Integra - Bat Eginez" izenburuari jarraituta antolatu dabe, "bizilagun barrixak sensibilizatzeko asmuarekin" eta, horretarako, inmigraziñuan eta baillarako industriaren garapenian adituak diran hizlarixak gonbidatu dittue, bestiak beste industria 4.0 dalakuari buruzko eta EAE-ko ekonomixia bultzatzen daben sektorien inguruko informaziñua emoteko. Gorka Errasti udaleko inmigraziño teknixarixak, Jesus Gutierrez historiadoriak,

Wolfgang Whalster DFKI Adimen Artifiziala Alemanian inbestigatzen daben zentruko zuzendarixak, Ana Isabel Vicente formakuntza-ikertzailliak, Joxe Mari Ulazia Armerixa Eskolako ikasketak buruak eta Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizartekintza zuzendarixak jardungo dabe berbetan (jardunaldixa gaztelerez izango da). Parte hartu nahi dabenak martxuaren 2rako emon biharko dau izena. Informaziño gehixagorako 943203244 telefonora deittu, ikastarokak@armeriaeskola.com helbidera idatzi edo www.armeriaeskola.com helbidian begiratu leike.



martxoak 5 osteguna
martxoak 6 ostirala

I. GILDA

LEHIAKETA

SARI BI:

Herritarrek aukeratutako saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutxak eta orriak egongo dira.

Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:


Mireia Alonso - Ruben Etxaniz - Josu Gimenez - Josu Mugerza



AGUÑASPI
Urkizu 22



AKARA
Untzaga 4



ALBERTO
Juan Gisasola 10



AMESTI
Ziriako Agirre 2



ARKUPE
Isasi 2



ASTELENA
Estaziño 7



BIRJIÑAPE
Toribio Etxebarria 16



BOSSA
Ego-Gain 7



BOULEVARD
Bista Eder 5



CASERIO
Tiburzio Anitua 10



CEPA
Urki 29



DEPOR
Toribio Etxebarria 16



FOXTTER
Plaza Barria 6




GURBIL
Isasi 1




GURIDI
Untzaga 3



JANTAEDAN
Tiburzio Anitua 20



KOSKOR
Calbeton 6



KULTU
Zuloagatarren 3



LA TERRAZA
Indalezio Ojanguren 2



NUEVO
J. Antonio Iturrioz 1



O'HARA
San Juan 19



ONGI-ETORRI
Toribio Etxebarria 21



PALOMA
Juan Gisasola 5



PAULANER
Ego-Gain 3



TXOKO
Untzaga 10



TXURRUT
San Juan 4



YORK
Isasi 9

Bozketan parte hartzen dutenen artean
EIBAR-SEVILLA foball partidua ikusteko
bi sarrera zozketatuko dira.

Animatu zaitetz eta parte hartu!!!

14 urtez

berbetan

...eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela hamalau urte jarri zuen abian Berbetan egitasmoa, euskera praktikatzeko programa. Euskera jardun nahi dutenei gune natural eta informala eskaintzen die ...eta kitto!-k. Horretarako euskaldun berriz eta euskaldunetz osatutako taldeak egiten dira, eta gutxienez astean behin elkartzen dira, ordubete, euskeraz berba egiteko. Hamalau urte hauetan bilakaera handia izan du egitasmoak: 18 lagunekin hasi zuen 2002-2003 ikasturtea, eta gaur egun 90 lagun inguruk dihardute 15 taldetan. Horri **Euskeraz Primeran!** kanpainan diharduten dendak eta tabernak gehitu behar zaizkio. Kanpainarekin bat egin duten dendari eta tabernariak, jendaurrean, gutxienez, lehenengo hitza, euskeraz egiteko konpromisoa hartu dute.



Ikasturte hasieran Berbetan kanpainarako erabilitako irudia.



Joan den eguaztenean aurkeztu zen **Euskeraz Primeran!** kanpaina udaletxean. Eskumako irudian, programak euskeraren inguruan eskaintzen dituen zerbitzuen katalogoa.



berbetan

10 taldek dihardute, guztira 57 lagun. Horietatik 36 euskaldun berriak dira, eta 21 euskaldunak. Astean behin elkartzen dira, ordubete, eurek aukeratutako leku eta orduan.



GURASOAK berbetan

4 taldek dihardute, guztira 23 lagun. 14 euskaldun berriak dira, eta 9 euskaldunak. Talde horietatik 3 talde naturalak dira, hau da, eskolatik kanpo, parkean, lagunartean... elkartzen diren taldeetan egiten dute mintzapraktika.



DENDARIAK berbetan

Astean behin elkartu eta euskera praktikatzan duten 2 talde daude, 7 lagun guztira. **Euskeraz Primeran!** kanpaina Eibarko 191 dendak eman dute izena. Jendaurrean lehenengo hitza euskeraz egiteko konpromisoa hartu dute.



OSTALARIAK berbetan

Euskeraz Primeran! kanpaina Eibarko 74 tabernak eman dute izena. Jendaurrean lehenengo hitza euskeraz egiteko konpromisoa hartu dute.

BERBETAN OROKORRA



Euskera praktikatu nahi eta ezin, inguruan euskaldunik ez dutelako edo ohitura galdu dutelako. Egoera horretan zeuden hainbat herritarren kezka helduta jarri zuen martxan ...eta kitto!-k Berbetan egitasmoa. Gaur egun, herritar guztientzat doan irekita dagoen egitasmoan 57 lagunek dihardute 10 taldetan banatuta. Astean behin elkartzen dira, ordubete, normalean tabernaren batean. Lagunartean elkarrekin bezalakoa izaten dela diote parte-hartzaileek, berriketa arruntak izaten dituzte: asteburuan zer egin duten, telebistan zer ikusi duten, zein eguraldi datorren... solasaldi informalak, giro natural eta informalean. Baina horrez gain, hainbat ekintza osagarri ere eskaintzen zaizkie urte osoan: hitzaldiak, tailerrak, tribial lehiaketa, irteerak... Aurten, esate baterako, Gernikako Bakearen Museora joango gara apirilean eta maiatzean, berriz, Euskal Herri osoko berbalagunak elkartzen dituen Mintza Egunera joango gara, Berara.



Izen-ematea
Urte osoan, doan
943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus



GURASOAK BERBETAN



Gurasoak, bizitzako beste arlo askotan bezala euskeraren inguruan ere, eredu dira seme-alabentzat, euskeraren aldeko jarrera positiboa lantzeko orduan. Esparru estrategikoa dira familiak euskeraren transmisioan eta hori kontuan izanik sortu zuen ...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan azpiatala. Ikastetxeekin elkarlanean antolatzen da programa, bertan jasotzen dute gurasoek informazioa, eta astean behineko taldeez gainera, talde naturalek ere jarduten dute euskera praktikatzeko, esate baterako parkean, eskola kanpoan... sortzen diren guraso-taldeak. Garrantzitsua da umeak eta gurasoak elkarrekin ondo pasatzea eta esperientzia atseginak bizitzea euskeraz. Aldi berean, umeek gurasoak beste heldu batzuekin euskeraz dihardutela ikustea ere oso garrantzitsua da. Horregatik gurasoentzat eta seme-alabentzat hainbat ekintza antolatzen dira; hilean behin "Barixakuak jolasian" ekimenaren barruan, tailerrak, hitzaldiak, jolasak, antzerkiak... eskaintzen zaizkie ume eta gurasoei. Eta ikasturte amaieran, euren eguna ere ospatzen dute: Gurasoak Berbetan eguna.

Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskeraz



DENDARIAK BERBETAN



KARAMELUAK DENDETAN

Euskeraz Primeran! egitasmoaren barruan, kanpaina berezia jarri du martxan ...eta kitto!-k egunotan. Kanpainarekin bat egin duten denda eta tabernetan, ...eta kitto!-k eta Udalak euskeraren inguruan eskaintzen dituzten zerbitzuen gidaz gain, bestelako produktuak ere banatu ditugu egunotan. Dendetan, esate baterako, karameluak banatuko ditugu martxoaren lehenengo astean. **Euskeraz Primeran!** logotipoa duten karameluak dira, eta guztira 300 kilo atera dira. Denda bakoitzari kilo bat emango zaio, doan, eta jaso eta berehala jarriko dituzte jendaurrean.

Dendariekin berbetan

Ainhoa Alonso (Ditare)

Zergatik egin duzu bat kanpainarekin?

Euskerari laguntzeagatik.

Ahalegin handia eskatzen du kanpaina parte hartzeak?

Norberaren esku dago, noraino inplikatu nahi duen bakoitzak. Egia esan, nik beti izan dut euskeraren aldeko jarrera, euskeraz egiteko ohitura daukat, eta bezero gehienak euskaldunak ditut.



- | | | |
|---------------------------------|----------------------------|----------------------------|
| ADHARA ZENTROA | FARMALUR | MAMACAS |
| AIXA | FEDEROPTICOS IGMAR | MANDIA (Jazinto Olabe) |
| ALAI ESTETIKA | FRAN URKIDI | MARA MARA |
| ALBERTO BITXITEGIA | GALARRETA | MARIA OSPITXAL (Calbeton) |
| ALBIZU HARATEGIA | GANBARAN | MARIA OSPITXAL (Barrena) |
| ALDAZABAL | GAUR ELECTRICIDAD | MARIA OSPITXAL (Jardiñeta) |
| AMAÑA HARATEGIA | GENERAL OPTICA | MARINA DENDA |
| ANA BELEN MENDEZ | GENOVEVA | MARSI |
| ANA MANDIOLA FARMAZIA | GERRITEK | MEKA-HOTEL |
| ANDIA | GOIEN | MENDINUETA FARMAZIA |
| ANSA BITXITEGIA | GOIKO LUZ | MGUSTA |
| ANTXON GOZOTEGIA | GOIKOETXEA | MIKEL ELORZA |
| ANUXAI | GOIZANE | MUGA |
| ARKATZ | GOZO GOZO | MUGIKA HARATEGIA |
| ARLA | GOZOKI | MULTIOPTICAS |
| ARRATE AUTOESKOLA | GRATZINA | MUMA |
| ARREGI DOMINGUEZ (Ego-Gain) | GUBY EMAKUMEA | MUÑOZ KALBETOI |
| ARREGI-DOMINGUEZ (Bidebarrieta) | GUBY GIZONAK | MUÑOZ URKIZU |
| ARTAMENDI | GUBY MUTILAK | NATURAL BIODENDA |
| ARTEZI TAPIZERIA | GUILLERMO BURGOA | NAUTALIA |
| ARTILE | ARRAINEGIA (Urkizu) | NEREA |
| ASCASIBAR | GUILLERMO BURGOA (Errebal) | NO COMMENT |
| ASTIGARRAGA | GUISASOLA ESTANKOA | OBERENA |
| ATREZZO | HALCON BIDAIAK | OGI BERRI (Calbeton) |
| ASCASIBAR | HOMME | OGI BERRI MUXU |
| ASTIGARRAGA | IBONE ESTETIKA | OGIE |
| ATREZZO | IDOIA BERGARETXE | OIHAL |
| AZKUE FARMAZIA | IKATZ | OTEGUI (Sostoa) |
| AZPIRI JOSTUNDEGIA | IKUSIMAKUSI | OTEGUI (Urkizu) |
| BAMBI | ILARGI | PATXIFOR aseguruak |
| BARCELO | IÑAKI GUMUZIO FRUTATEGIA | PITXIAK |
| BEGOÑA RUIZ DENDA | IÑAKI REZOLA HARATEGIA | PLAZAZOLA |
| BEITTU | IRATXE BELARDENDA | QUETZAL |
| BENETTON | IRAUNDEGI FARMAZIA | REFAN |
| BENICOBA | IRRISSA | ROCA |
| BLANCA LORADENDA | ISASI OKINDEGIA AMAÑA | SABORES |
| BURBUJAS Y MAS | ISASI OKINDEGIA EGO GAIN | SALABERRIA BITXITEGIA |
| CAPI | ITXESI | SAN ANDRES |
| CASAR SISTEMAS | IZADI | SEGUROS BILBAO |
| CASAMANIA | IZANE | SOLERA |
| CASTAÑO FARMAZIA | IZAR | SOLOZABAL |
| CASTAÑO ILAPAINDEGIA | JAINAGA | SORAZA ARRAINEGIA |
| CDR BIZIKLETAK | JAUREGUI | (Merkatu plaza) |
| CEDRY MODA | JERONIMO | TIO PALANCAS |
| CHARANGA | JOSI ETA JOSI | TITANLUR |
| CORRAL | JUARISTI | TRIBEKA |
| CORTINAS EIBAR | KARLOS ALTZARIAK | TTIKI |
| DENETIK | KERALA | TWINS |
| DESVAN | KETESA | TXEMA |
| DIBUTEK | KINKILA | TXIOKA |
| DIRDAI | KIÑU | TXUKUNA |
| DITARE | KIROS | TXUTXUFLETAS |
| DIVINA VALENTINA | KOPINA | UDARE |
| DON TAKON | KRISEILU | UMEA |
| DOROTI | LA GOLOSINA | UNFEMA |
| E & M | LA GUINDA | UNTZAGA PRENTSA |
| EGAÑA | LA TIENDA DE PAUDA | URDANIBIA |
| EGUREN | LABORES DE AINHOA | VANESA ARRAINEGIA |
| EIBAR OUTLET | LAHIDALGA | (Merkatu plaza) |
| EIBARKO BIZIKLETA | LAKETT | VELCARR |
| EL CORTE INGLES (Ego-Gain) | LAKUESTA | VIECO |
| EL CORTE INGLES (T. Etxeb.) | LANERAKO MAHOIAK | X EXTREME |
| ELECTRO AGUIRRE | LARRAMENDI FARMAZIA | YRAGOITIA |
| ELITE | LARRANAGA HARATEGIA | ZABALETA |
| ELORTZA | LEKUNBERRI | ZENTRAL OPTIKOA |
| ERREBAL KIROLAK | LIDE GAZTE MODA | ZEBENBIDE AUTOESKOLA |
| ESTANCO 15 | LOLA'S | ZUBIZARRETA OKINDEGIA |
| ESTANCO JARDINES | MABE | (Amaña) |
| ESTUDIOS ARRILLAGA | MAITE ARRAINEGIA | ZURKULU |
| ETXEDREAMS | (Merkatu plaza) | |

Komertzioa eta ostalaritzaren inguruan Eibarrek duen bizitasun eta mugimendua ikusirik, euskeraren erabilera bultzatzeko asmoa herriko denda eta tabernetara ere zabaltzeko apostua egin du ...eta kitto!-k. Ikasturte honetan, eta Eibarko Udalak emandako diru-laguntzari esker, hauspoa eman zaio Berbetan egitasmoari, eta programa bera indartzearekin batera, **Euskeraz Primeran!** kanpaina jarri da abian. Astean behin ohiko taldeetan elkartzeko zituzten zailtasunak kontuan hartuta, euskeraren erabilera sustatzeko bestelako moduren bat eskaini nahi izan zaie denda eta tabernei. Kanpainarekin bat egiten duten komertzio eta tabernei **Euskeraz Primeran!** pegatina jarri dute eta lehenengo hitza euskeraz egiteko konpromisoa hartu dute. Jakina, ahalegin hori alde biek egin behar dute, eta horretan herritarrok ere badugu zeresana. Beraz, pegatina ikusten duzuen denda eta tabernetan, lehenengo berba behintzat, euskeraz egin ezazue.

OSTALARIAK BERBETAN



Dendei egindako eskaintza berbera egin zaie Eibarko tabernei ere, eta guztira 74 tabernak egin dute bat **Euskeraz Primeran!** kanpainarekin.

AGIÑASPI	KILI- KILI
AKARA	KITTO
ALBERT	KOSKOR
ALBERTO	KULTU
ALDATZ	LA TERRAZA
AMBIGU	LANUS
AMESTI	LAS TORRES
ANARDI	LAU BIDE
ARKUPE	LAUREL
ARTETXA	LURPE
ASTELENA	MAIXA
ATERPE	MANUEL
AZKENA	MOXO
BAISI	NUEVO
BELEKO	O'HARA
BIRJIÑAPE	O'JAYS
BODEGA VINAGRE	OISHI
BOSSA	ONGI-ETORRI
BOULEVARD	OR-ONDO
BUENOS AIRES	PALOMA
CASERIO	PAULANER
CEPA	PORTALEA
DEIKA	SAGARBITZA
DEPOR	SLOW
EGO-GAIN	SOKOA
EGOKI	SUBEROA
EZ- DOK	TRINKETE
FOXTTER	TXIRULA
GAU TXORI	TXOKO
GURBIL	TXURRUT
GURIDI	VASCO MANCHEGO
HIRUROK	XANIA
IPURUA	XOK
IRIMO	YORK
ITURRI	ZAZPI
JANTAEDAN	ZELAI- BIDE
KALTON	ZUBI-GAIN

AZUKREA ETA SERBILETAK TABERNETAN

Aste honetan bertan banatu ditu ...eta kitto!-k **Euskeraz Primeran!** kanpainako azukreak eta serbiletak kanpainarekin bat egin duten tabernetan. Guztira 1.080 Kg. azukre eta 500.000 serbiletak. Horiek ere doan banatu zaizkie tabernei, jaso eta berehala erabiltzen hasteko. Egunotan, beraz, ikusgai izango dituzue.



GILDA-LEHIAKETA

Kanpaina parte hartzen diharduten tabernen artean, bestalde, I. Gilda-lehiaketa antolatu da martxoaren 5 eta 6rako. Guztira 27 tabernak eman dute izena, eta 7. orrian duzue parte hartuko dutenen informazioa. Sari bi izango ditu lehiaketak: bata herritarrek aukeratutakoa (150€) eta bestea epaimahaiak aukeratutakoa (150€). Herritarren botoa emateko kutxak eta bozketa-orriak eskura izango dituzte tabernei.



Ostalariekin berbetan

Txomin Zubizarreta (Zubi-Gain)

Zergatik egin duzu bat kanpainarekin?

Euskera zaindu beharra dugulako. Guk ez badugu egiten, gure atzetik datozenek ere ez dute erabiliko. Guk erabiltzen badugu, besteek ere errazago egingo dute.

Ahalegin handia eskatzen du kanpaina parte hartzeak?

Ez. Nire euskera ez da oso ona baina berdin zait. Erabiltzea da garrantzitsuena. Erabiltzen ez badugu, galdu egingo dugu-eta.



Martxuaren 8xan ez eze

egunero #feministanaiz

Martxuaren 8xaren inguruan antolatu daben egitarauari gaur bertan ekingo jako, martxan daguazten 38. Antzerki Jardunaldixen barruan antolatutako emanaldixan Nuria Gonzalezek 20.30xetatik aurrera Hezkuntza Esparruko taula gaiñian eskinduko daben "Taitantos" lanarekin. Baiña betiko moduan, Udalak eta Eibarko Emakumien Mahaixak, herriko andrazkuen alkartiekin batera antolatutako ekitaldixak martxua osua beteko dabe.

Bixarko, barriz, bereziki andrazkueri zuzendutako World-Kafe edo hausnarketa-saiua preparau dabe, feminismuari buruz berba egin eta eztabaida sortzeko asmuarekin. Zezenbide kaliau dagan Andretean egingo dan solasaldixari "Zuri zer kontatu dizute feminismoaz?" izenburua ipiñi detse eta, hori irakorritta, debatia nundik nor a jua leikian asmatzia ez da gatxa.

Bixar goizian egingo dan saiua Zaida Fernandezek gidatuko dau eta, mahai gaiñera etarako dittuen kontuen artian, jarraixan aittatzen dittugunak egongo dirala aurreratu

dabe antolatzailliak: "Oindiok be 'feministanaiz' esatia estigmatizauta dago, askok ez dabe ondo ikusten eta 'erradikalen' edo 'gizonen gaiñetik egon nahi daben andren' kontua dala pentsatzen dabe. Bizi garan gizarate matxistak feminismua desprestigiatzeko mezuak zabaltzen dittu etenbarik, baiña badakigu feminismua benetan zer dan? Ezagutzen dittugu mugimendu feministaren burrukak, lorpenak eta ekarpenak zeintzuk diran? Zelako loturia dagan feminismuaren eta demokraziaren artian? Bixar egingo dogun World Kafe horretan horrelako gaixen

eta feminismuarekin lotutako beste hainbaten inguruko hausnarketa egitteko tartia egongo da".

Lau orduko taillarra izango da, 10.30xetan hasi eta 14.30xetan amaittuta eta, antolatzailliak diñuenez, "asmua feminismuari buruzko zalantzak argitzia, feminismuari lotutako estereotipuekin amaitzia eta mugimendu feministak izan dittuan lorpen eta burroken gaiñian biharra egittia da". Informaziño gehixago nahi dabenak 943700828 telefono zenbakira deittuta bihar dittuan argibidide guztiak jasoko dittu.



ANDONI ARGOITIA URKIOLA II. URTEURRENA (2013-II-28)

Beti izango zara gure artean

ZURE FAMILIA



"Dialogos" erakusketia Portalean

Datorren asteko barixakuan, bestalde, Portaleko erakusketa aretuan "Dialogos" izenburukua zabalduko dabe. Hillaren 29ra arte ikusgai egongo dan erakusketan artista biren artelanak bat egingo dabe: Lourdes de la Villak 'Sueño del observador' izeneko proiektua ekarriko dau gurera eta aretuaren beste erdixa betetzen, barriz, Rafa Tormo i Cuenca egongo da. Artista honek bideua eta eskultura erabillita kolezionismuari buruzko ikerketa-lana egin dau.

Eta inauguraziño egunaren bixamonian, martxuaren 7xan Armagintza Museuak andrak protagonista izango dittuan ekitaldi berezixa hartuko dau 17.00etatik aurrera: "Zer nolako biharra, emakumeena!" izenburuari jarraituta eta Emakumiaren Naziñoarteko

Egunaren bezperia izateko atxakixarekin, edade guztietako jendiarendako aproposa izango dan ekimen barrixa abiaraziko dabe. Arduradunen berbertan, "belaunaldi desberdiñen arteko topaketia izatia gustauko litxakigu, ama eta seme-alaba, amona eta lloiba, izeba eta loberi zuzendutako ekitaldixa". Gehixen jota 25 laguneko taldia osatuko dabe, jarduera euskeraz garatuko da eta izen-emotia egunian bertan egingo dabe Museuan, 16.30xetatik 17.00etara.

Ez da hori izango, gaiñera, martxorako antolatu dan bisita gidatu bakarra. Izan be, Juan San Martin liburutegixak martxorako bisita-gidatuak preparau dittu, liburutegixa barru-barrutik ezagutu nahi da-



"Trilogia del Baztan", Dolores Redondoren liburu-en kritika saiua antolatu dabe.

ben herriko andren talde, kolektibo eta alkartiendako.

Eta martxuaren 8xan 11.00etatik aurrera hainbat ekitaldi hartuko dittu Untzagak. Bestiak beste "photocalla" eta "Feminista naiz" goiburuari jarraituko detsan alkarretaratzia, Cielito Musika Bandakua 12.30xetan Coliseoan egunaren harira eskinduko daben kontzertu berezixa, andrendako bazkarixa (izena emoteko Andretxeara jua edo deittu bihar da) eta 18.00etatik aurrera Andretxean egingo dan karaoke feminista egitteko asmua dake.

Eta urtero lez, aurten be Martxuaren 8xa pasau eta gero andrazkueri eskindutako ekitaldixak segiduko dabe: martxuaren 11n Skolastikaren "Trilogia del Baztan"-en inguruko literatur-kritika egingo dabe Portalean, 18.30xetan.

Eta urtero lez, aurten be Martxuaren 8xa pasau eta gero andrazkueri eskindutako ekitaldixak segiduko dabe: martxuaren 11n Skolastikaren "Trilogia del Baztan"-en inguruko literatur-kritika egingo dabe Portalean, 18.30xetan.

Topalekurako erakusketia preparatzen

Azken urtiotan egindakua bidetik, aurten be Lan Artistikuen Erakusketia antolatzeko biharrian dabilza Arrate Kultur Elkartekua, Martxuaren 8xan gogoratuko dan Emakumiaren Egunaren harira Topalekuan ikusgai ipintzeko. Kulturalak egindako deixari erantzuten detsen artistak presentatzen dittuen artelanekin osatuko daben erakusketia datorren asteko barixakuan, martxuaren 6xan inauguratuko dabe eta, hortik aurrera egunero zabalduko dabe, martxuaren 15era arte. Andrakumiak eta Martxuaren 8xa gaixari jarraituta egingo dan erakusketan 16 urtetik gorako edozeiñek dauka parte hartzeko aukeria, beti be aittatutako hórrekin moduren batian loturia daken artelanak aurkeztuta.

Era guztietako artelanak onartuko dittue: marguak, eskulturak, argazkixak, bideuak, marrazkixak... Parte hartu nahi dabenak argi ibilli biharko dau baiña, erakutsi nahi diran artelanak jasotzeko azken eguna domekia, martxuaren 1a izango da eta. Lanak entregatzeko Arrate Kultur Elkartean bulegora jua bihar da zuzenian. Lanekin batera, sobre zuri batian artistaren datuak idatziz entregau biharko dira (izen-abizenak eta telefono zenbakixa) eta sobriaren kanpoaldian, barriz, lanaren izenburua argi eta garbi adierazitta egon biharko da. Informaziño gehixago eskatzeko edo ager leikiazen zalantzak argitzeko 638284912 telefono zenbakira deittu leike (Iratxe) edo, bestela, iraunao@yahoo.es helbidera idatzi.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**PUBLI
RESA**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea
eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

Martxoaren 14an "Aldaketa soziala orain!" goiburuari jarraituta manifestazioak egingo dira Bilbon eta Iruñean, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak jasotzen dituenak paperetik errealitatera saltoa emateko eskatzeko. Aurretik, datorren asteko martitzenean (3an) Arrate Kultur Elkartean karta aurkezteko hitzaldia emango du Bea Martxuetak, 19.00etan hasita. Aurkezpenean, elkarrizketa honetan egindakoaren bidetik, www.eskubidesozialenkarta.com helbidean modu zabalean jasota dagoena laburbiltzen ahaleginduko da.



BEA MARTXUETA

LABeko politika sozialetako idazkaria:

"KARTA SOZIALA eskuan, bigarren faseari ekiteko garaia heldu da"

- Zer azalduko duzu Eibarren emango duzun hitzaldian? Nondik nora joko duzu?

Karta Sozialaren kokapena egiten ahalginduko naiz. Sarrera modura Karta Sozialaren abiapuntua azalduko dut eta, ondoren, prozesua eta edukia azaltzera pasatuko naiz. Abiapuntua nolabait kokatzeko, bada urte eta erdi inguru prozesu sozial honetan murgildu ginela eta oraindik ere horretan gabilta, gero eta jende gehiago erakatzeko, honen inguruan gero eta eragile eta atxikimendu gehiago batzen joateko ahalegintzen.

- Zergatik eta nola sortu da EHko Eskubide Sozialen Gutuna?

Pixka bat atzera begiratzen ipiniz gero, argi dago oso urte gogorak izan direla. 2007. urtean krisi sistemiko honetan sartu ginenetik, maila handiagoan edo txikiagoan denengan eragina izan duten gobernuak ezarritako neurri gogorak salatzeko zazpi greba orokor egin dira Hego Euskal Herrian. Lehenengoa etorriko ziren murrizketen, desberdintasunaren bidean jarriko gintuen neoliberalismoaren kontrakoa izan zen eta zazpigarrena, berriz, gutariko inork nahi ez dugun eredu honentzat alternatibak egon badaudela esateko egin genuen. Horregatik, alternatiba horiek karta sozial batean laburbildu nahi izan ditugu, askok "Euskal Konstituzioa" deitu izan duten gutuna osatuta.

- Eta nolakoa izan da karta lantzeko prozesua?

Karta gure lanerako tresna izango dela kontuan izanik, denon artean adostu beharra zegoen eta horretan ibili gara, Hego Euskal Herrian bai behintzat. Izan ere, karta Euskal Herri osorako izateko bokazioarekin sortu bada ere, Iparraldean oraindik erronka handia daukagu. Beste gauza askotan bezala, honetan ere beste erritmo bat daramate eta, bileraren bat edo beste egin badugu ere, kostatzen ari zaigu karta han ere zabaltzea. Hala ere, horretarako beharrean jarraituko dugu. Kartaren oinarria lantzeko orduan asanblada bitartez funtzionatzea erabaki zen eta ehundik gora eragile horretan jardun dugu eta herrietako lantaldeetan egindakoa batzeko, berriz, Karta Sozialaren Koordinadora Nazionala izenekoa eratu zen. Eta mekanismo partehartzailerri jarraituta eragile sozial guztien artean landutakoa eskuan, koordinadora horrek zirriborro bat idatzi eta hori lantzeko metodologia zehaztu zuen, Euskal Herriko hainbat herritara eraman eta lantzeko.

Aldaketa soziala eta erabakitzeko eskubidea dira Kartaren oinarriak

Horretan mila lagunek baino gehiagok hartu dute parte eta, lanean ibili diren urtebete horretan, herrietan hainbat bilera egin eta gero, aurreko ekainean kartaren elaborazioaren azken geltokira ailegatu ginen.

- Eta prozesuaren zein puntutan gaude orain?

Tresna hori eskutan hartuta, bigarren faseari ekiteko unea da orain. Hala ere, egia da kartak gai askoren inguruko kontuak jasotzen dituela eta horietako askotan ez dela adostasunik lortu, baina horien inguruko eztabaida ez da itxiztat eman, "kutxa" batzuetan gordeta daude, aurrerako berreskuratu eta adostasuna lortu arte eztabaidatzen jarraitzeko.

- Eta zer aldarrikatuko da Martxoaren 14rako deituta dagoen ekitaldian?

Kartak oinarri bi dauzka: aldaketa soziala eta erabakitzeko eskubidea. Eta horien inguruan programa sozial bat eratu da. Euskal Herriak batez ere eskubide horiek bermatzea behar du. Kartan zerranda luzea dago, baina batzuk aipatzearen parte-hartzea, justizia soziala, berdintasuna, natura eremuekiko errespetua, iraunkortasun orekatua, aberastasunaren bidezko banaketa... aipa daitezke. Martxoaren 14an, besteak beste, Euskal Herriko instituzioei urrian aurkeztu genuen alternatiba hori betetzeko lanean hastea eskatuko diegu.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Etxebizitza erosteko une egokia dela diote adituek. Hiru dira arrazoiak: prezioen estabilizazioa, erreforma fiskala eta hipotekak errazago lortzea. Estadistikek argi eta garbi azaltzen dute azkenengo hilabeteetan etxebizitzaren erosketak gora egin duela. Etxebizitza erosteko erabakia hartzeko orduan, bakoitzaren egoera pertsonalaz gain egoera ekonomikoa ere oso garrantzitsua izaten da. 2015ean zehar prezioak egonkortzen joango dira.

Gainera, perspektiba ekonomikoak baikorrak dira eta, dirudienez, lan-merkatua ere hobetzen joango da. Hori guztia kontutan hartuta, etxebizitza erosteko une egokia dela pentsatzen dute sektore honetako adituek. Aurreko urtean kreditu hipotekarioak %40ko igo ziren. Azkenengo urteetan bizi dugun krisialdia dela eta, oraindik posible da aukera paregabeak aurkitzea etxebizitzaren sektorean.




www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29




EIBAR. Bidebarrieta Ref. N00601
Berriztua, igogailua eta kalefakzioa.
3 logela eta 2 komun. 240.000 €



EIBAR. Untzaga Ref. N00638
Handia, kokapen ezinhobea eta bistak.
Igogailua eta kalefakzioa. Garajea
aukeran. 310.000 €



EIBAR. Sansaburu Ref. N00707
3 Logela. Igogailua eta kalefakzioa.
Trasteleku bikaina. 155.000 €



EIBAR. San Agustin Ref. N00270
Berrizteko 115 m². Igogailua.
Oso argitsua. 199.000 €



DEBA. Ibai-gain Ref. N00045
Prezio berria. 2. etxebizitza moduan
aproposa. Aparkalekua. Bistak. 125.000 €



ZUMAIA. Amaia Ref. N790
la berria, leku ezinhobea. Logela 1.
27 metroko trastelekua. 109.200 €



JARDIÑETA 135.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trasteroa eta kalefakzioa. Oso eguzkitsua.



JARDIÑETA 172.000 €

PRIMERAKO AUKERA. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Kalefakzioa. Guztiz jantzita eta berriztuta.



UNTZAGA 160.000 €

AUKERA PAREGABEA. 2 logelako apartamentuak. Egongela-sukalde-jangela eta komuna. Guztiz berriztuta eta jantzita. Eibarko erdialdean. Igogailua. Kalefakzioa. Kanpora begira. Oso eguzkitsua.



GARAJEAK
EIBARKO
ERDIALDEAN

EROSI ZURE GARAJE-PLAZA
FINANTZIAZIO-BALDINTZA
EZINHOBEEKIN
17.500€tik aurrera

AUKERA ONA!!!



TXANTXA-ZELAI 199.000 €

AUKERA PAREGABEA. 3 logelako etxebizitza polita. Egongela-sukalde-jangela eta bi komun. Balkoi eguzkitsua. Kalefakzioa eta igogailua. Gutiz jantzita eta berriztuta.



ZULOATARREN 315.000 €

Etxebizitza handia. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Leihodun trastero handia ganbaran. Igogailua eta kalefakzioa.



LEGARRE 120.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza eguzkitsua hegoaldera begira.



AUKERA ONA!!!

2 gela 121.124€tik aurrera
3 gelako azkena 160.953€.
PREZIOEN BARNE
GARAJEAK ETA
TRASTEROAK

BABES OFIZIALEKO AZKEN
ETXEBIZITZAK URKIZU
INGURUAN



JULIAN ETXEBERRIA 290.000 €

AUKERA PAREGABEA. 3 logela, egongela-jangela handia, sukaldea eta bi komun. Leiho handiak. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz jantzita eta berriztuta. Zona amankomunak guztiz berriztuta.



TXANTXA ZELAI 164.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Kalefakzioa. Terraza. Berriztuta eta jantzita.



TORIBIO ETXEBARRIA 206.000 €

4. pisua. 100m². Udaletxearen ondoan. Erreforma behar du. Aukera asko eskaintzen ditu. Gas naturala leihoraino. Igogailua. Ganbara. Argitsua eta eguzkitsua.



AMAÑA 80.000 €

2 logela handi, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Balkoia. Bizitzera sartzeko.



BISTA EDER 290.000 €

Atikoa. 3 logela. Egongela oso handia, sukaldea eta bi komun. Kalefakzioa. 3 terraza.



ISASI 165.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Berriztuta eta guztiz jantzita. Kokapen ezinhobea.




MIGUEL AGINAGA 150.000 €

AUKERA PAREGABEA. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Kalefakzioa eta igogailua. Trastero oso handia ganbaran.



TORIBIO ETXEBARRIA 189.000 €

1. pisua. AUKERA PAREGABEA. 100m². Udaletxearen ondoan. Igogailua. Gas naturala leihoraino. Erreforma behar du. Aukera asko eskaintzen ditu. Ganbara.



MUTILOA 180.000 €

Oso polita. 2 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berriztuta eta jantzita.



BIDEBARRIETA 150.000 €

Logela bateko apartamentua, egongela, sukaldea, jangela eta despentsa. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berriztuta eta jantzita. Aukeran etxebizitza eta trastero sarrera zuzena duen garajea.



Amaña 127.000 €
 Ezhinboea. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztuta.




Torbio Etxebarria 175.000 €
 Kokapen ezhinboea. Oso eguzkitsua. Terraza izugarria.



Errebal 180.000 €
 100 m². Ganbara eta trastero handia. Igogailua eta kalefakzioa.



Txirio-kale Galdetu
 Eraikin berria. 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Armairu enpotratuak.



Isasi 85.000 €
 Aukera ona. 95 m². Berriztuta.



Sautxi 179.000€tik aurrera
 Etxebizita eta duplex oso politak. Guztiz jantziak. 2 eta 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trasteroa.



Birjiñape 180.000 €
 Oso polita. 2 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



Legarreko dorrea 193.500 €tik
 3 logelako etxebizitzak. Egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Oso eguzkitsua. Bista ezhinboeak.



Egiguren (Abontza) 210.000 €
 Ezhinboea. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztua. Garaje itxia aukeran.



Urkizu aldea 157.000 €
 Aukera ona. Oso polita eta elbarrituendako egokituta. 2 logela, sukalde-egongela eta komun handia. Igogailu handia eta kalefakzioa.



Fermin Calbeton Galdetu
 Kokapen oso ona. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara, kalefakzioa eta igogailua.



Ipuruako dorreak Galdetu
 3 logelako etxebizitzak, 2 komun, egongela balkoiarekin eta sukaldea. Orientazio desberdinak. Garajea eta trasteroa.



Urkizuko dorreak 160.000 €
 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta esekitokia. Igogailua eta kalefakzioa. Garajea aukeran.



Zenzenbide 235.000 €
 Terraza oso handia. Hegoaldera begira. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



Barrena 162.000 €
 Ezhinboea. 3 logela, 2 komun, egongela balkoiarekin eta sukaldea. Oso eguzkitsua.



Aldatze GARAJEAK
 Primerako aukera. Motorrentzako garajeak: 8.100 €-tik
 Autoendako garajeak: 17.000 €tik



Urkizu pasealekua 138.000 €
 Aukera paregabea. Pisu altua. Igogailuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta bainu-gela. Ganbara.



Julian Etxebarria Galdetu
 Merketuta. Pisu altua. Sekulako bistak. 145 m².



Juan Antonio Moguel 95.000 €
 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handia. Ganbara.



Urki Galdetu
 Pisu altua. Ezhinboea. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastero handia kale mailan. Igogailua. Kalefakzioa.



San Juan Galdetu
 170 m². 4 logela, 3 komun, egongela, egongelatxo eta sukaldea. Igogailua eta kalefakzioa.



Zuloagarren 220.000 €tik aurrera
 Neurri eta altuera desberdineko etxebizitza oso handiak.



Jardiñeta 138.000 €
 2 logelako etxebizitza polita. Egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Gazteentzako ezhinboea.



Bidebarrieta 240.000 €
 110 m²ko etxe ederra. Pisu altua eta eguzkitsua. Igogailua.



Legarren Gain GARAJEAK 18.523 €-tik
 Alokairua: 80 €
 Alokairua erosteko aukerarekin.

agencia
inmobiliaria
Juaristi

A.P.I.: Rosa Juaristi

www.inmobiliariajuaristi.com



Jardiñeta. 65.000 €



Urki. 88.000 €



Bista Eder. 98.000 €



Juan Antonio Mogel. 98.000 €

Arragueta, 2 bis B-behea 943 20 08 60

INMOBILIARIA ESTUDIO



PS XXI



ELGOIBARko erdialdean. 68 m².
Bizitzera sartzeko. 168.000 €.



EIBARKO erdialdean.
110 m². Berrizteko.
300.000 €.

Higiezin-zerbitzuak eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. **943 74 23 06** 20870 ELGOIBAR

www.inmobiliariapsxxi.com

APARKATU EIBAR ERDIAN.
Aldatze kalean

Garajeak salgai
17.550 €-tik aurrera
Informazio gehiago Eibarko Bankoako
bulegoan edo honako telefonoetan:
> 943 20 39 40 > 943 20 39 41

CA bankoa
CREDIT AGRICOLE



Etxeak
zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Etxebizitza erostea, duda barik, gure bizitzako inbertsiorik handiena izango da. Horregatik, erabakia ezin daiteke berehalakoan hartu eta ezertan hasi baino lehen, gaiaren inguruan informazio zabala eskuratzea gomendatzen da. Jarraian, etxebizitza erosteko orduan kontsumitzaileen elkarteek ematen dituzten hainbat aholku laburbildu ditugu, zuen erosketa ahalik eta erosoena eta seguruena izan dadin.

Erosketa egiten deneko unean oso garrantzitsua da gerta daitezkeen iruzurren aurrean ondo babestuta sentitzea. Bigarren eskuko etxebizitza erostean hainbat puntu argitu behar dira. Horregatik, erosketa segurua bermatzeko gakoak ematen dizkizuegu jarraian.

- Etxebizitza zuri saldu nahi dizunaren izenean dagoela konprobatu Jabetzaren erregistroan.
- Gainera, etxebizitza dagoen tokiak, azalerak eta bestelako ezaugarriek errealitatearekin bat egiten dutela konprobatu.
- Komunitate-gastuak jabeak esan dizkizunak direla.
- Etxebizitzak ez dauzkala bestelako kargak, ez dagoela alokatuta, eta bere erabilera ez dagoela dibortzio prozesuan dagoen beste bikotekide baten esku.
- Komunitatearen estatutuak erreparatu, zure eskubide eta obligazioak ezagutzeko.
- Salmenta ez bada oso azkar egin behar, etxebizitzari buruzko informazio iraunkor zertifikatua eska dezakezu.
- Saltzaileak komunitate gastuak eguneratuta dauzkan konprobatu.
- Etxebizitzaren instalakuntzak ondo dauden ikusi.
- Udaletxean Higiezinaren gaineko zerga (kontribuzioa) ordainduta dagoen ikusi. Saltzaileari ordainagiriaren kopia eskatu diezaiokezu.
- Bankuan: Etxebizitza hipoteka batekin grabatua badago, aukera bi daukazu. Batetik, saltzaileari notario aurrean hipoteka bertan behera lagatzen duen dokumentua sinatzeko eskatu diezaiokezu. Edo, nahiago izanez gero, hipoteka zure gain hartu dezakezu, subrogazio bitartez zeurea eginez. Hipoteka kontratatatu zeneko termino guztiak dakizkizunean, etxebizitzaren prezioari hipotekaren prezio osoa deskontatu behar diozu.

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333

Mobila. 656 766 344

www.inmoarregi.com

Eibar-Athletic derbia: puntu premian dauden artekoen lehia

Domekan oso neurraketa berezia izango dugu Ipuruan sailkapenean berdinduta dauden bi taldeen artean. Partidua 17.00-etan hasiko da eta azken postuetatik ihes egiteko hiru puntu garrantzitsu izango dira jokoan. Piovaccari, behin zigorra beteta, eta Errasti taldera bueltatu-

ko dira eta neurraketa bereziki prestatu dute Garitanoren multilek, saio guztiak atek itxita egin dituzte-eta.

Neurketaren inguruan eta egun osorako hainbat ekimen antolatu dituzte herriko ostalariek eta Eibar Merkatalgune Irekiak. Horrela, Eskozia la Bra-



va peñak txosna irekiko du Untzagan Athletic-eko zalegoari harrera egiteko. Hor Bihurri eta Patxi Forma aizkolarien norgehiagoka ikusi ahal izango da, aita eta semeen arteko lehian. Geroago, 13.00ean, ZZ Torpes Eibarko musika taldeak kontzertua eskainiko du. Bestalde,

Ustekabe txarangak erdiko kaleak girotuko ditu eguerditik aurrera eta arratsaldeko 16.00-ak arte, ordu horretan kalejira abiarazteko Ipuruako zelaira bidean. Gaztelu puzgarriak ere izango dira Untzagako Jubilatuen Etxearen aurrean eta baita giza-futbolina ere.



Udaberri Sariaren edizio berria domeka goizean

Goizeko 09.45etan hasiko da etzi goizean Eibarko Txirindulari Elkartek antolatuta jokatu den Udaberri probaren 37. edizioa. Junior mailako txirindularientzako lasterketak 78 kilometro izango ditu eta, Untzagatik irtenda, Plaza Barrian amaituko da 11.40ak bueltan. Txirindulariek Bergararaino joko dute, handik Maltzagara etorri eta ondoren Ondarruraino joateko, San Miguel gainetik pasata Eibarren amaitzeko: azken tarte, Barrena kaletik Bidebarrieta 2an kokatuko duten helmugaraino, kontrako norabidean egingo dute.

Deltecoko junior mailako asteburu bikaina triatloian



Euretako bi, gainera, garaile izan ziren. Zapatuan jokatu den Ermuko duatloian Pablo Arakistain eibartarra junior onena izan zen helmugan eta gauza bera eskuratu zuen Txomin Osorok Bejarko neguko triatloian. Azken hau, gainera, egiten diharduen denboraldi bikainari jarraipena emanetz, bosgarrena izan zen sailkapen orokorrean.

Bigarren eski irteera astebete aurreratu dute

Klub Deportiboko eski batzordeak antolatutako bigarren eski irteera astebete aurreratu dute eta martxoaren 7/8ko asteburuan egingo da. LHko 5. eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek Somporten egingo dute iraupen eskia eta 18 urtetik gorakoek Astunen alpinoa. Azken hauek Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu eta gazteenek

Triton aterpetxean. Helduek 65 euro ordaindu beharko dute bidaia eta pentsio erdiko ostaturerengatik eta haurrek 75 euro (hor forfaita, monitorea eta alokairua barne). Interesatuak eguazten eta eguenean eman ahal izango dute izena, Deporrek bulegoetan, 19.30etatik 20.30etara. Informazio gehiago: eski@deporei-bar.com



Pilota partiduak gaur Astelenan

Udaberri Txapelketako partidu bi jokatu dira gaur 19.15etatik aurrera Katedralean. Hasteko, Klub Deportiboko gazteen arteko lehian, Amuategi-Arrieta III.a eta Ibarra-Acuña bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da eta, jarraian, jubnil mailako neurraketa, Arrillaga-Urienabarrenetxea bikoteak Arrasateko ordezkariak egingo die aurre. Aurreko asteburuan jubnil mailako Narbaiza-Gastañaga bikotea garaile izan zen berriro eta lidergoan jarraitzen du. Bestalde, datorren astetik aurrera Deba Arroko torneoaren edizio bati ekingo zaio eta hor izango dira Deporrek jubnil eta senior mailako ordezkariak.

Xakeko bigarren taldeak maila igotzeko jokatu du

Xakeko talde biek denboraldi bikaina dihardute egiten eta azken jardunaldia horren beste adibide garbia izan da. Deportiboko lehen taldea 0,5-3,5 nagusitu zen Donostian Gros C-ren aurrean, Rikardo Bastida, Julen Garro eta David Perezen garaipenekin eta Jon Aranaren berdinketarekin. Emaitza horrekin, eibartarrek Preferenteko lidergoa eskuratzen dute, puntu eta erdiko aldearekin Billabona A-k, Baionak eta

C. Iriondok osatutako hirukotearekiko.

Bigarren taldeak, bestalde, 3. postuan amaitu du 2. mailako liga eta 1. mailara igotzeko play-offean parte hartzeko eskumena lortu du beste multzoko lau taldeekin borrokan. Azken asteburuan 2,5-1,5 nagusitu zitzaion Eibarren Santikutz-Legazpi A taldeari, Xabier Beorlegiren eta Jose Antonio Garridoren garaipenekin eta Emilio Freiren berdinketarekin.



Deporreko talde biak maila onean dihardute liga txapelketan, goi postuetan gainera.



Zazpi waterpolista Euskal Herriko selekzioarekin

Urbat-Urkotronikeko infantil mailako taldearen zazpi jokalarik Euskal Herriko selekzioaren azken deialdian izan dira. Azken jardunaldian Waterpolo Donostiri 8-28 irabazi zion taldeko Libe Arribas, Jone Gomez, Oier Lete, Sara Leturiaga, Martin Zamakola eta Eneko eta Jon Trebiñok osatu dute aipatutako zazpikotea. Bestalde, senior taldeak lehia gogorra izan zuen Hernanin, azken laurdenean erabaki zena. Horraino 10nako berdinketarekin iritsi ziren eta hor izandako 0-4ak garaipena eman zien eibartarrei (10-14).

Porrota saskibaloian

Igoera faseko ligaxkako lehen jardunaldian, Katu Kalek amore eman behar izan zuen azkenean Ordizia 1. multzoko liderraren kantzaxan (65-57). Bihar eibartarrek Andoingo Ganbara 2. multzoko lidera hartuko dute Ipuru kiroldagiko kantzaxa berdean 18.00etatik aurrera.

Haritza eskubaloia taldea esprintean igotzeko fasearen bila

Denboraldi hasiera kaskarra izan bazuen ere, taldea osatzen joan den neurrian Haritzak gorantza egin du eta, liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan, igotzeko faserako postuetara hurbiltzeko esprintean dabil. Azken jardunaldian 32-27 irabazi zion sailkapeneko 3. postuan dagoen Usurbili. Somos Eibar Eskubaloia talde nagusiak, bestalde, aurreko aste porrotaren ondoren garaipenaren ildora bueltatu da.

Oreretako Ereintzari 29-24 irabazi eta gero, Anaitasuna jarraitzen dute izaten puntu bakarrera eta Tolosa hirugarren sailkatua bostera.



Haritzak gora egin du taldea osatzearekin batera.

Ramon eta Muguruza judokak Espainiako txapelketara

Aurreko domekan Iruñiako Mendillorri kiroldegian jokatu den junior mailako Espainiako judo txapelketarako sektore fasean, Kalamuako Julen Ramon eta Nekane Muguruza izan ziren parte hartzen Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkun moduan. Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskadiko ordezkarien arteko torneo horretan, Julen Ramonek urrezkoa lortu zuen bere pisuan eta Nekane Muguruzak finala galdu eta zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuen. Biharartzelona jokatu den senior mailako Espainiako Kopan hartuko dute parte biek eta Muguruzak, hiru onenen artean sailkatzea lortzen badu, Madrilen jokatu beharreko finaletarako txartela eskuratuko du -gaur egun bigarrena da estatuko rankingean-..



Sergio Salgado Euskadiko azpitxapelduna squash-ean

Aurreko asteburuan Gasteizeko Beti-Jai Frontoietako instalazioetan jokaturako squash-eko Euskadiko txapelketan Klub Deportiboko ordezkariak torneo ikusgarria egin zuen, hainbat partiduei buelta eman eta finalera iristeraino. Lehen errondan aurkako 2-1eko irauli egin zuen etxean jokatzen zuen Alvaro Fernandezek aurka eta bigarrenetan (final-zortzirenak) C.D. Amayako Ion Garayoari irabazi zion 2-0 galtzen joan ondoren. Final-laurdenetan eta finalerdian, bestalde, erraz nagusitu zen, 3-0 irabazita Raul Fernandez (FreeSquash) eta Jokin Esparza (CD Amaya) aurkariei. Finallean 0-2 galtzen hasi zen David Marinekin eta, hirugarren joko bereganatzea lortu bazuen ere, hurrengoan amore eman behar izan zuen. Eibartik joandako beste laurak ezin izan zuten oso aurrera jo: Josu Gallastegik eta Jon Losadak kuadro printzipalaren lehen errondan galdu zuten eta gauza bera gertatu zitzaizen Oscar Ferreiro eta Miguel Cabanillas aurreko fasean, denen kasuan kontsolazio partiduak jokatzeke.



Salgado (eskuman) eta Esparza.

Elurrari aurre egin zioten Deporreko mendizaleek

Aurreko zapatuan 29 laguneko taldea osatu zuten Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoek Urbasa eta Lizarragaren arteko mendi irteera egiteko, tartean Baitzako gaineratik (1.182 metro) pasatuta. 16 kilometroko ibilbide hori aprobetxatu zuten Roberto Larrañagak eta Angel Treviñok euren eguna lagunaren artean ospatzeko. Batzorde horretako egutegiaren arabera, martxoan hiru aktibitate antolatuko dituzte: 7-8ko asteburuan eskalada ikastaroa eta irteera egingo dute San Faustora, 14an Ardo eta arraon bidearen lehen etapa eta hilaren 28an Anguianotik Valvanerara joango dira. 14ko irteeran Oionetik Laguardiara joango dira eta 28ko irteeran Pico La Rioja (1.562 m.) gaingituko dute. Aipaturako ekitaldietan parte hartu nahi dutenak Depo-



Taldekideek eskerrak eman nahi dizkiote Roberto Larrañagari elur artean bidea zabaltzeagatik. Zorionak!

rreko bulegotik pasa daitezke martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 10.30etara, edo 943-201904 telefono zenbakira deitu dezakete.

Armagiñak lider Erregionaleko Kopan

Arizmendirekin 3-1 galduta ere, Armagiñak goi-goian dago Kopako faseko taldeetako 4. multzoan. Puntu bakarrera dago Soraluze eta bira Eibartarrak eta Mutriku. Eibartarren arteko lehian, Eibartarrak 2-1 nagusitu zitzaion Urkiri Unben jokatutako neurketan. Bestalde, igoera fasea jokatzen diharduen Urkomendi 14 taldeari oso zail ipini zaio helburua lortzea, azken jardunaldian ere husna berdindu baitzuen Ordiziarekin: goikoengatik oso urruti daude eibartarrak.

Urbateko igerilariak bikain Legazpin

Herriko bost igerilari izan ziren aurreko asteburuan Legazpin jokatu zen Gipuzkoako VII. Sarian. Euretako hiruk, gainera, podiuma zapaldu zuten hainbatetan: horrela, Anie Erkiaga txapeldun izan zen 100 bular eta 50 libretan, Ander Romarate 100 bizkarrean nagusitu zen eta bigarrena izan zen 100 bularrean, eta Ion Osa azpitxapeldun geratu zen 100 eta 200 libretan. Marina Bedia podiumetik ezin gertuago egon zen 200 libre eta 200 estilotan, bietan 4.a izan zelako, eta Roke Etxeberria seigarren amaitu zuen bi probetan. Bestalde, Ander Izagirre Cadizen dago atzotik, domekara arte han jokatzen diren Neguko Espainiako txapelketan.



motzean

ERRUGBIA

Aurreko asteburuan Eibar Rugby talde nagusiak jokatu ez zuen arren, nesken EzDok taldeak galdu egin zuen domekan Getxon jokatuko duen partiduen bezperan. Bestalde, eskolako hiru taldeek ere lehian izan ziren: 12 urtetik beheko taldea izan zen garaietako bakarra.



DEPORREKO BATZARRA

Ohiko batzar nagusia 20.00etan hasiko da bigarren deialdian eta 2014ko ekintzen memoria, kontuen gorabeherak, eta galdera eta eskariak osatuko dituzte horko gai-ordena. Jarraian, 20.45etako bigarren deialdian ekingo zaio ez-ohiko batzar nagusiarri, gai-orden bakarrekin: Kezka Dantza Taldea, argazkilaritza, squash-a, eskia, artxiboa, kultura eta txirindularitzako batzordeetako ordezkariak hautatzea Zuzendaritzako kide izateko.

Sormenerako espazioa da hilaren erdialdera Elgeta-kalean, Portalea eraikin inguruan Irati Arriola, Miren Oteiza eta Garazi Urzuriaga gazteek zabaldu berri duten "Tarteka". Lokalak dauzkan 100 metro karratuetan hainbat tailer eskaintzen dituzte, sormenarekin lotutako diziplina anitzetan trebatzeko: arte plastikoak, artearen historia, gitarra, kantua eta mugimendua, antzerkia, ingelesez jolastu eta ikasi, arteterapia, eskola-laguntza eta ikasketa teknikak, eskulan tailerra... Informazio guztia www.tarteka.org helbidean dago.

- Zer da Tarteka eta zeinentzat sortu duzue?

Sormen espazioa da. Arte diziplina ezberdinak erabiliz eta ikasketa teknikoaren bitartez, guretzat garrantzitsuenak diren baloreak, autonomia, norberarenganako segurtasuna, komunikazioa, sormena, autoezagutza... jendeak bereganatzea da asmoa. Era guztietako jendearentzat pentsatuta dago eta eskaintzen ditugun tailerretan nor bere toki aurki dezake.

- Zergatik animatu zarete Tarteka zabaltzen?

Eibarren artean dauden gabeziak betetzea, jendea artearekin kontaktuan jartzea, kultura zentro bat sortzea eta metodo akademikoetatik aldendu nahi dugu. Batez ere jendea gustora etortzea gustatuko litzaioguke, lasai espresatzeko tokia delako. Luzaroan pentsatzen ibili eta gero, eta lan mundua nola dagoen ikusita, guk nahi genuen hori sortu behar genuela argi ikusi nuen.

- Nola lortu duzue horrenbeste diziplina ezberdin bateratzea?

Hirurak gatz artearen mundutik, Iratik eta Garazik Arte Ederrak eta Arteterapia ikasi dute eta nik (Mirenek) Artearen

Historia. Horrez gain, hezitzaile bihurtzen gaituen irakaskuntza masterra daukagu.

- Nolako da hasiera?

Lehen uneko emozio handia eta gero beldurra ailegatu zitzaigun, baina hori normala izateaz gain aberasgarria ere izan da, asko ikasi dugulako. Betidanik egon gara elkarrekin eta hirurok proiektu bat sortu eta aurrera ateratzea oso polita izan da.

- Laguntzarik izan duzue?

Diru-laguntza lortzeko kurtsua egin genuen Debegesan, baina ematen duten laguntza hori oso urria dela uste dugu. Gazte eta sortzaileentzako oso laguntza gutxi daude, arlo horretan asko dago egiteke oraindik ere. Bestela babes handia izan dugu. Inaugurazioan guk maite ditugun guztiak egon ziren eta hori asko eskertu genuen.

- Nolako harrera egin dizuete?

Oso ona. Jendea informazio bila etortzen da eta hori oso garrantzitsua dela uste dugu. Azken batean horrela gu ikusten gaituzte, gurekin berba egiten dute, instalazioak ikusten dituzte eta ekarritako inpresiotik ezberdintzen den beste batekin joaten dira.



Miren Oteiza
(TARTEKA SORMEN ESPAZIOA)

"Eibarren dauden arte gabeziak bete nahi ditugu"

CENTRO OM ZENTROA

Zezenbide, 1 - behea ezk. - EIBAR -



**REIKI
SHIKI RYOHO**

Felipe Arnaz Escudero

REIKI 1. MAILA:

OSABIDE NATURALEKO USUI SISTEMA

Martxoaren 7an eta 8an (16.00etatik 20.30etara)

Kontakturako: 627 916 746 / 943 208 324 (plaza mugatuak)



- Reiki Maisua eta terapeuta: 2.975 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza

La Salle Azitaingoak bidaian

La Salle Azitaingo ikasleak bidaian ibili dira azken eguntan. Urteroko martxari jarraituta, batxilergoko 2. mailakoak Bartzelonan egon dira. Kontatu digutenez, "bidaia luze samarra egin bazitzaigun ere, abestuta eta film pare bat ikusita pixka bat arintzea lortu genuen. Gainera, Zaragozan Pilarreko basilika bisitatzeko geldialditxo bat egiteko aprobe txatu genuen, Bartzelonara hotelera ailegatu baino lehen. Hurrengo bi eguntan, berriz, Bartzelonako tokirik esanguratsuenak ikusi genituen eta ordu batzuz antzezle bilakatu ginen, gauetako batean hilketa

bati buruzko antzezlan batean parte hartzeko aukera izan genuen eta".

Eta batxilergoko 1. mailako ikasleak, berriz, Salamancara joan ziren: "Salamancara ailegatu aurretik, Burgosen gelditu ginen Eboluzioaren Museoa eta katedrala bisitatzeko. Eta



Batxilergoko 1. mailakoak Burgosen eta Salamancan izan dira.



Batxilergoko 2. mailakoak Zaragoza eta Bartzelona bisitatu zuten.

behin Salamancan, hiria primeran ezagutu genuen, gida baten azalpenei esker. Beste-

ak beste Maskorraren etxea, Unamunoren etxea izan zena eta komentua ikusi genituen. Bidaia aberasgarria izan da, hiria oso polita eta bisitatzeko bikaina da eta. Gainera giza eboluzioaren inguruan asko ikasi dugu, azken egunean Atapuercara joan ginelako. Han, besteak beste, lehen gizakiaren arrastoak aurkitu genituen, sua antzinako moduan egiten ikasi genuen eta lehen gizaki haiek nolako bizimodua zuten hobeto ulertuta itzuli gara etxera".



Boluntario eibartarrak Alboan-eko Gazte Sarearen II. Topaketan

Argazkian ikusten dituzuen Aldatzen-eko boluntarioak Lizarran aurreko asteburuan egin zen Alboan-eko Gazte Sarearen II. Topaketan parte hartzen egon ziren. Aurten Egoaziak eta Aldatzen-ek lantzen diharduten "Irakas-kuntza Unibertsala, gure konpromisoa Iparraldean eta Hegoaldean" udalak diruz lagundutako proiektuarekin Alboan GKE-ak antolatutako Gazte Sarearen Topaketari laguntzeko aukera izan dute gazte bolondrosek. Proiektuan Aldatzen-eko sei gaztek eta Egoaziako beste batek elkarlanean dihardute.

Isasi, 31
943 207 737

Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!

Eibar-Barça partidurako
2 SARREREN ZOZKETAN
sartuko zara



KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO

Lehen jauntzerako eta ezkontzetan erresak eramateko
JANTZIAK

ume eta gazte
Kopina
moda

f kopinamoda
San Agustin, 3
943 204 181



UR APALATEGI (idazlea)

"Nire kontuen helburua, egia izan baino, egiaren sentsazioa ematea da"

Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatean Euskal Literaturako irakaslea da "Fikzioaren izterrak" ipuin liburuarekin Euskadi Literatura Sariaren irabazlea. Aurretik "Gauak eta hiriak" eta "Gure Gauzak S.A." eleberriak argitaratu zituen idazlea martitzenean Portalean izango da, Harixa Emoten tailerrean, bere ipuin liburuaren nondik-norakoak argitzen, 19.00etan hasiko den saioan.

- Zergatik nobelak egitetik ipuinetarako jauzi hau?

Bi nobela jarraian idatzi ondoren, banuen zeozer berria egiteko asmoa, erronka berri bati ekitekoa, eta horrek aldaketa eskatzen zuen. Pertsonalki, gainera, ipuina hobeto egokitzen zen nire bizimodu berriari: bi haurrekin, denbora malguago erabiltzeko aukera eskaintzen zidalako.

- Zer islatu nahi izan duzu ipuin liburu horretan?

Liburuaren gaia sakona da eta errealtatetik ihes egin eta fikziora jotzeko dugun beharra adierazten du. Eguneroko bizitzan horretarako zinera edo/eta literaturara jotzen badugu ere, hortik aparte beti asmatzen ditugu istorioak eta gure bizitzan etengabe ari gara gidoiak egiten. Egoera ezberdin horiek gure burua sendatzeko ere balio dute.

- Idazmena eta harremanak, zure lanetako ia betiko gaiak. Bezirik interesatzen zaizkizu?

Egia da. Betidanik sortu dit interesa giza-harremanak zelan kudeatzen ditugun. Gai unibertsala deritzot; hori bai, nire ikuspegitik lantzen dut. Idazmenarena pertsonalagoa da: idazleak pertsonaia erakargarriak iruditu zaizkit beti, potentzialitate handikoak eta joko asko ematen dutenak.

- Zer dago fikziotik eta zer errealtatetik ipuinotan?

Dena da egia eta, aldi berean, dena gezurra da. Kontatzen dudana bere oinarrian egiazko bizitza da, egiazko sentipenekin: ez literalki, baina ezta asmatutakoa ere. Hori egiatik. Eta dena gezurra dela defendatzeko, esango nuke helburua ez dela egia kontatzea, baizik eta egiaren sentsazioa ematea. Horretarako erabiltzen ditut hainbat tranpa eta mozorrotzen dut errealtatea.

- Gertuko proiekturik bai? Zerekin diharduzu egun?

Gauza gutxi. Unibertsitateko zurrunbiloan nago sartuta eta hainbat ardura hartu ditut gure sailean. Unibertsitateko artikulua besterik ez ditut egiten. Hori bai, literaturari buruzkoak direnez, betebeharrak hori dibertigarria ere egiten zait.



Mansoren koadroak Bergaran

Martxoaren 11ra arte Bergarako Nahikari kafetegian (Mastarreka, 20) Joseba Manso eibartarraren margolanak ikusteko aukera izango da. Erakusketa hainbat paisaia eta herri barruko txoko irudikatzen dituzten hamabost koadrok osatzen dute eta teknikari dagokionez tinta sepian, ur-kolorearen teknikarekin 300 gramoko Fabriano akuarela paperaren gainean margotuta daude. Erakusketa martitzenetik domekara bitartean ikus daiteke, 12.00etatik 15.00etara eta 18.00etatik 00.00etara.



Kaleetan Kantuz Barakaldora

Kaleetan Kantuz abesbatzako kideak gaur arratsaldean autobusez Barakaldora joan dira, 19.30etatik aurrera hango antzokian abesteko. Horrela, gaurko elkartrukean eskainiko duten emanaldiarekin, Gabonetan Barakaldoko taldekoek gure herrira egindako bisitari ondo baino hobeto erantzungo diote eibartarrek.



EH-ko Mus Finalera

Aurreko domekan Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruan Alegian jokatu zen Gipuzkoako kanporaketan gure herriko bikotek jardun zuten eta horietako batek, Jon Zubizarretak eta Josu Plazaolak osatutakoak Euskal Herri mailako finalerako "aparteko zailtasun barik" sailkatzea lortu zuen. Esan digutenez, "finalerako oso gogotsu" daude eta Lekeition jokatuko den finalera "ilusio handiarekin" joango dira. Aurreko asteburuan Alegian izan ziren lau eibartarren argazkia helarazi diguten Klub Deportiboko tabernakoek "animo guztiak" eman nahi dizkio Eibarko bikoteari eta finalerako zortetik onena opa nahi diote.



Opera eta umeendako zinea asteburuan

Coliseoak proiektzio bereziak eskainiko ditu asteburu honetan, ohiko zine emanaldietatik kanpo. Horrela, bihar eta etzi "Paso a paso", 2-12 urte arteko neska-mutilentzako egindako laburmetraien multzoa estreinatuko dute. Irudimenarekin beste mundu batzuetara bidaiatzeko eskaintza hori arratsaldeko 17.00etan izango da ikusgai egun bietan, 1. aretoan. Bestalde, bihar "Plácido Domingo. Live at Loreley" opera kontzertuaren grabazioa proiektatuko da arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

Anger taldearen kontzertua

Arrasateko Anger taldeak abenduan Bonberenea Ekintzak-ekin kaleratutako "Sute Perfektua" lan berria aurkezteko kontzertua emango du gaur gauean, 23.30etan hasita Beleko tabernan. Aurten hemezortzi urte beteko dituen taldeak bere seigarren lan hau aurkezteko birari ekin dio otsailean. Anger talde modura Arrasateko Musakola auzoan eratu zen 1997an eta sasoi hartan "musikaren zirrarak eta musika sortzeko irrikak liluratutako nerabeak" zirenak, urteetako ibilbidea egin eta gero, eskarmentu handiko musikariak dira gaur egun. Eurek diotenez, "izarretik gutxi eta bizarretik sasoiaren arabera asko, musika jale,



zale eta sortzaileak (saiatuak behintzat) gara. Bizi dugun mundu eta jendarteak zeresana ematen duen zalantzarik ez daukagu, eta zeresan hori gure galbahetik pasatuz abesti eta diskoetan islatzen dugu".

Zapatuko ipuina, Maialen Zubeldiarekin

Bihar 18.00etan Maialen Zubeldiak "Baziren behin..." ipuin kontakizuna eskainiko du umeen liburutegian, 3-9 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako saioan, Zapatuko Ipuina



egitasmoaren barruan. Ipuin kontalariak berak aurreratu duenez, "Baziren behin..." kontakizunean "pinguino bihurri bat, printzesa izan nahi ez zuen neskatua, Wilbur katuarekin bizi zen sorgina eta gimnasia egiten ez zekien Munstroa, abentura dibertigarriak bizitzeko prest dauden pertsonaiak" izango ditu bi delagun.

Sari gehiago Palacios-entzat

Deporreko Argazki Taldeko Juan Antonio Palaciosok bere lanekin eskuratutako sari-zerrenda luzeari Serbian eta Italian berriki jaso dituen beste hauek gehitu behar zaizkio: "Tierra de Campos 3" izenburukoa Serbiako "Singidunum 2015" delakoan argazki onea aukeratu dute eta, gainera, FIAP Nazioarteko Argazkilaritza Federazioak ematen duen Urrezko Domina jaso du eta ohorezko aipamena ere egin diote. "Chimenea, Pared y Bici" izenburukoa, berriz, elkarte beraren ohorezko beste aipamen bat jaso du; eta "Fronton" argazkiak FSS Serbiako Argazkilaritza Elkartearen Urrezko Domina lortu du. Eta Ita-



lian ere saritu dute argazkilari eibartarra: "Temporal" izenburuko argazkiak, Montevarchi Hiria Sariaren 6. edizioan FIAP-en ohorezko aipamen bi jaso ditu.

laburrak

TUTE TXAPELKETA KATU-N

Urtero moduan, Katu Kale tabernak tute txapelketa antolatu du. Martxoaren 2an hasiko da eta partidak hurrengo asteetako astelehen eta eguaztenetan jokatuko dira, liga egiturari jarraituta. Izena emateko 30 euro ordaindu beharko da bikoteko eta azken irabazleak izena eman dutenen artean jasotakoaren %75 bereganatuko du eta beste finalistak %25.



LIBURU AURKEZPENEA

Bihar 18.00etan "Sentimientos De Cristal. Emociones imperfectas" Agalir argitaletxearen liburu solidarioa aurkezteko hitzaldia emango dute Agurtzane Estradak eta Iñaki Urdangarin Iraetak, Bittor Sarasketa kalean dagoen Itzamna akademian. Sarrera librea izango da.

Otsailaren 27tik martxoaren 6ra artekoa



Otsailak 27 **barixakua** **20.30etan** **Unibertsitatean** **90 minutu** **15 euro**

Taitantos (*Candelaria Sur -MADRIL-*)
ZUZENDARIA: COTE SOLER / ANTZEZLEA: NURIA GONZALEZ

Euskarri sendoak dituen bakarriketa landuaren aurrean gaude, baina agian ez zen horrenbeste nabarmenduko bere antzezleagatik ez balitz: zineman zein telebistan, aktore edo aurkezle bezala, lan ugari egin dituen Nuria Gonzalezen alderdi komikoa guztiz ezaguna baita. Bere betiko iseka garratzarekin eta ohiko etorriarekin dotore jantziko du "Emakumea eta Antzerkia" arloko lana.

Otsailak 28 **zapatua** **20.30etan** **Coliseoan** **100 minutu** **15 euro**

Misanthropo (*Kamikaze Producciones -MADRIL-*)
ZUZENDARIA: MIGUEL DEL ARCO / ANTZEZLEAK: ISRAEL ELEJALDE, RAUL PRIETO, CRISTOBAL SUAREZ, ANGELA CREMONTE, JOSE LUIS MARTINEZ, MIRIAM MONTILLA eta MANUELA PASO / MUSIKA: ARNAU VILA

Molierек sortutako pertsonaiaren berraztertze modernoak XXI. mendeko gizartearen usadio eta ohituren deskribapen kritikoa egiten du. Askatasuna zer den argi izatearen zailtasuna salatu nahi du antzezlanak eta baita hutsalkeria eta itxurakeriaren menpe bizi behar izana. Modu paregabean uztazen dira hitza, gorputz espresioa, koreografia, musika eta zinea bera. Guztiz gomendagarria.



Martxoak 2 **astelehena** **19.00etan** **Coliseoan** **90 minutu** **15 euro**

La Mejor Magia (*Cía. Fabrica de Magos -BIZKAIA-*)
MAGOAK: NUEL GALAN, DANIEL KA, HECTOR MANCHA eta MAGO VALEN

Magia orokorrarekin, manipulazioekin, itzal-antzerkiarekin, mentalismoarekin... disfrutatzeko aukera berezia eskaintzen digu Fabrica de Magos produkzio etxeak. Horietako zenbait saiok mundu osoko biltzar ospetsuetan hainbat sari jaso izan dituzte eta horko batzuk Italian egingo den Magia Elkarten Nazioarteko Federazioaren mundu biltzarrean izango dira. Benetako ikuskizuna.

Martxoak 3 **martitzena** **20.30etan** **Unibertsitatean** **55 minutu** **15 euro**

El reportaje (*Prod. del Ciclo "Nuestro Teatro" -ARGENTINA-*)
ZUZENDARIA: HUGO URQUIJO / ANTZEZLEAK: FEDERICO LUPPI, SUSANA HORNOS eta JUANJO ANDREU
ZUZENDARI-LAGUNTZAILEA: JULIETA TURCO

Umore zorrotz eta kritikoa erabilia, antzezlan honetan telebistarako elkarriketa bat prestatzen ari dira jeneral bati zigorra betetzen dagoen espetxean. Helburua da argitzea zein erantzukizun izan zuen erregimenaren zentsura jardueretan eta, bereziki, bere partehartzea El Picadero antzokian eragindako sutean Teatro Abierto zikloa desagerrarazteko. Drama historikoa eskaintzen zaigu lan honetan.



Martxoak 5 **eguna** **20.30etan** **Coliseoan** **85 minutu** **15 euro**

De mutuo desacuerdo (*Pentacion -MADRIL-*)
ZUZENDARIA: QUINO FALERO / ANTZEZLEAK: TONI ACOSTA eta IÑAKI MIRAMON / MUSIKA: MARIANO MARIN

Lan hau XXI. mendean garatzen ari diren familia berrien argazkia da. Komedia bizi eta bizkor baten aurrean gaude, oso garratza, baina ironia dosi handiarekin gozotua. Nabaria da Woody Allenen eragina egilearekiko. Argumentua umorearen ikuspegitik garatzen da, baina familia bat haustean sorzten den gatazkaren gordintasuna ezkutatu gabe. Bi antzezle arrakastatsuren maisu-maistra lana.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AMETZ, txapeldun! Ondo pasau zure egunian! Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ODILE, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Julen zure anaixaren partez.



Zorionak, LEIRE, astelehenian 11 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Eneko eta Anderren partez.



Zorionak, ALAIN, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Igor eta Kairen partez.



Zorionak, IRUNE, gure poxpolin txikixak bi urte egingo dittu-eta martxuaren 2xan. Aitita eta amamaren partetik Eibartik Pratera.



Zorionak, MAIALEN, gaur 10 urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxitxa, amama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, hillaren 9xan urtebete egin zendualako, eta PABLO (gaur sei betetzen dozuz-eta). Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIREN, gure printzesak martitzenian lau urte bete zittuan-eta. Neska haundi! Txokolatzeko muxuak zure ahizta ARRATE eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, GARI, zure lehen urtebetetzian, eta AITOR, datorren eguaztenian lau urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER, atzo bi urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, astelehenian 9 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa, txapeldun! Famelixaren partez.



Zorionak, DANEL!!!, gaur bost urte egitten dozuzelako. Patxo haundi bat aitaxoren eta famelixaren partez!!



Zorionak, EKI, domekan sei urte beteko dozuzelako, eta GORKA, martxuaren 12xan izango da-eta zure eguna.



Zorionak, BEÑAT, zure 7. urtebetetzian. Zelan gozaten dozun animalixekin! Muxu bat amama Amaia eta famelixaren partez.



Zorionak, IRENE, bixar 10 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Famelixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
28an: 22.30
1ean: 20.00

"Mr. Turner"

Zuzendaria: Mike Leigh



(2 ARETOAN)
28an: 17.00, 22.30
1ean: 17.00, 20.00
2an: 20.30

"No llores, vuela"

Zuzendaria: Claudia Llosa



28an: 19.45 (1 aretoan),
1ean: 20.00 (antzokian)
2an: 20.30 (1 aretoan)

"Kingsman. Servicio Secreto"

Zuzendaria: Mathew Vaughn



(ANTZOKIAN)
1ean: 17.00

"Annie"

Zuzendaria: Will Gluck



BARIXAKUA 27

GAZTELEKUA

16.30. Sexu aholkularitza. Indianokuan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. "Abesbatzaren kalejira. Untzagatik.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzea. Deporren.

BATZARRA

20.00. Klub Deportiboko batzar nagusia.

20.45. Ez ohiko batzarra, Zuzendaritza kideak hautatzeko. Deporren.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Taitantos" (Candelaria Sur). Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

23.30. Anger taldearen "Sute perfektua" lanaren aurkezpena. Belekun.



ZAPATUA 28

WORLD-KAFEA

10.30/14.30. "Zuri zer kontatu dizute feminismoaz" solasaldia. Andretxean (Zezenbide, 9).

GAZTELEKUA

17.00. Ping-pong txapelketa. Indianokuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. Kartulinazko txotxongilo tailerra. El Corte Inglesean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. "Baziren behin...", Maialen Zubeldiaren eskutik (3-9 urte bitarteko umeentzat). Liburutegian.

HITZALDI-AURKEZPENA

18.00. "Sentimientos de cristal. Emociones imperfectas", Agurtzane Estrada eta Iñaki Urdangarinen eskutik. Itzamna akademian (B. Sarasketa, 2).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Misanthropo" (Kamikaze). 15 euro. Coliseoan.

DOMEKA 1

TXIRRINDULARITZA

09.45. 37. Udaberri Proba. Irteera Untzagatik. Helmuga Plaza Barrian.

HAMARRETAKOIA

11.00/13.00. Salda eta txorizoa Eibar edo Athletic-en kamisetarekin doazentzat. Doan. Peña Txinberan (Zezenbide, 7).

EIBAR-ATHLETIC

11.15. Txosna zabaltzea. Aizkolarien arteko lehia. Gaztelu puzgarriak eta giza-futbolina. Untzagan.

13.00. ZZ Torpes-en kontzertua. Untzagan.

12.00/16.00. Ustekabe txarangaren kalejira.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 2

IKASTEN

16.00. Sendabelarren Foroa: "Adi landare pozointsuekin". Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19.00. "La mejor Magia" (Cia. Fabrica de Magos). 15 euro. Coliseoan.

MARTITZENA 3

IKASTEN

10.00. "Errege-ezteiak Bidasoan: Luis XIV.a 'Eguzki Erregea' eta Maria Antonieta" hitzaldia. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Convivir entre iguales" hitzaldia, LH-ko umeen gurasoentzat. San Andres ikastetxean.

HITZALDIA

19.00. Eskubide Sozialen Kartaren aurkezpena, Bea Martxuetaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Literatur tertulia: "Fikzioaren izterrak", Ur Apalategirekin. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "El Reportaje" (Prod. del Ciclo Nuestro Teatro). 15 euro. Hezkuntza Esparruan.

EGUAZTENA 4

JARDUNALDIA

09.00/13.30. "Ondo Egindako Lana" II. Jardunaldia. Armeria Eskolan.

IKASTEN

10.30. Antzerkia. Portalean.

11.00. Kafe-tertulia: Elikaduraren eboluzioa. Untzagako jubilatuetan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 5

IKASTEN

10.00. "Pintura, Parisko eskola: Chagall" hitzaldia (1. zatia), Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Comprender, adquirir y practicar competencias emocionales" hitzaldia, DBH-ko umeen gurasoentzat. Aldatze ikastetxean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "De mutuo desacuerdo" (Pentacion). 15 euro. Coliseoan.

HOROSKOPOA

ARIES

Zu, zu, zu eta, ondoren, zu. Ez dakizu besteak ere existitzen direla? Ez izan hain egozentrikoa eta ingurura begiratu.

TAURUS

Esnatuuu! Non duzu burua, non zaude? Zure pentsamenduetan ematen duzu eguna. Komentatu zure kezkek lagunei.

GEMINI

Egun osoa kezatzen eta purrustadaka pasatzen duzu. Nahikoa da! Hasi zaitzez gauzen alde onak ikusten, merezi baitu.

CANCER

Espero ez zenituen gauzak lortu baduzu ere, kontuz ibili. Ez pentsa edozer lor daitekeenik, orain arte zortea izan duzu.

LEO

Animaliak asko gustatzen bazaizkizu ere, kalean topatzen dituzun sugandila eta mamorro guztiak etxera eramatea...

VIRGO

Poker aurpegia ipintzen ikasi beharko! Berehala igartzen zaizu zer pentsatzen duzun eta hori kalterako izan daiteke.

LIBRA

Asteburu honetan nahi beste ligatuko duzu. Inoiz baino erakargarriago egongo zara: denetariko aukerak izango dituzu.

SCORPIUS

Zortea zure alde izango duzu eta espero ez duzun dirutxoia ere etorriko zaizu. Txamarretako poltsikoetan begiratu ondo.

SAGITTARIUS

Ikasketak alde batera lagata dituzu. Noiztik ez dudu liburu bat zabaldu? Azterketa sasoiari ondo damutuko zara!

CAPRICORNIUS


Aurreko asteburuan ezagutu zenuen lagun horrekin topo egin eta txinpartak irtengo dira. Oh, zuen arteko kimika!!!

AQUARIUS

Gauzak aurpegira esatea gustatzen zaizu, baina batzuetan zakarregia zara. Kontuz egin dezakezun minarekin.

PISCIS

Zure urtebetetzea ospatzeko parranda izugarria izango da, lagun asko dituzun seinale. Zorionekoa: bide onean zaude.



erakusketak

- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
J.I. AIZPURIAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
JOSE IGNACIO DE CASTROREN argazki erakusketa. *El Ambigun.*
PERIKO IRIONDOREN "Eibarko natura eta mendiak" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- ✓ **Martxoaren 1era arte**
IGNACIO GIMENEZEN erakusketa. *El Corte Inglesean.*
JOSEBA ARGINZONIZEN collageen erakusketa. *Topalekuan.*
IÑIGO GARATUREN eskultura, argazki eta bideo erakusketa. *Portalean.*
"SOPA DE GRILLOS" erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armagintzaren Museoa (Portalean).*

lehiaketak

- ✓ **25. Toribio Etxebarria Sariak**
 Lanak entregatzea eta informazioa:
Martxoaren 10era arte,
www.toribiochevarria.com helbidean.
- ✓ **XVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa**
Martxoaren 17ra arte, (19.00ak arte),
 Arrate Kultur Elkartean.
 Informazioa: 943202299 edo
arratekultu@gmail.com

hildakoak

- Pedro Garabieta Izagirre. 81 urte. 2015-II-18.
- Elena Mendizabal Basurto. 92 urte. 2015-II-19.
- Miguel Sobral Laskurain. 80 urte. 2015-II-19.
- Andres Ojangueren Maiztegi. 95 urte. 2015-II-20.
- Floren Arano Arretxea. 89 urte. 2015-II-21.
- M^a Dolores Salgado Salgado. 87 urte. 2015-II-22.
- Jose Luis Ruiz Olea. 73 urte. 2015-II-22.
- Juana Etxebarria Andres. 89 urte. 2015-II-24.

jaiotakoak

- Rayan El Moussaoui Bouzambou. 2015-II-12.
- Jon Olaia Vallejo. 2015-II-16.
- Leo Gutierrez Hernando. 2015-II-16.
- Paula Plaza Rubio. 2015-II-17.
- Nicolas Paradelo Lopes. 2015-II-18.

farmaziak

- ✓ **barixakua 27**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 28**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 1**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 2**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 3**
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguzatena 4**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 5**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 6**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

SUDOKUA

	4	2	6		1	3		
8								2
		5				7	8	
3				2				
			9		4			
				3				6
	9	1				4		
	6							2
		3	2		7	9	6	

6	4	8	9	2	7	3	5	1
3	2	1	6	5	8	9	4	7
7	5	9	1	4	3	6	8	2
4	8	3	2	7	5	1	6	9
5	6	2	4	9	1	7	3	8
1	9	7	8	3	6	5	2	4
9	1	5	3	8	2	4	7	6
2	7	6	5	1	4	8	9	3
8	3	4	7	6	9	2	1	5

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekuua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibar erdialdean. 2 logela, egogela, sukaldea eta 2 komun. Trasteroa eta igogailua. 2009ko eraikina. Oso argisua. Tel. 652-757925.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Soroluzen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitza eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-441517 eta 673-436363.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-197217.
- Logela behar da Eibarren erroldatze eskubidearekin. Tel. 632-878150.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 1 edo 2 logelakoa. Merke. Tel. 631-282203.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 450-500 eurotan. Tel. 634-458275.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-153524.
- Bikoteak, ume birekin, 3 gelako pisua hartuko luke Eibarren. Tel. 685-380585.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi-lizentzia saltzen da Eibarren jubilazioarengatik. Tel. 696-966865.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Ilepaindegia trasasoan Eibarren. Tel. 637-528992.

3.2. Errentan

- Garaje itxia hartuko nuke errentan Barrena eta Karmen inguruan. Tel. 676-105492.
- Garajea alokagai Estazio kalean (13. zenbakian). Tel. 943-203741.
- Lokala alokatzen dut. Hainbat jarduetarako aproposa: bulegoetarako, klaseak emateko... 30 m². Tel. 615-700184.
- Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m². Tel. 679-425467.
- Bulegoa alokagai. Klase partikularrek emateko egokia. 30 m². Merke. Tel. 607-658356.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta saltzaile jarduteko. Tel. 631-896104.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 658-907415.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein gauzez. Tel. 632-423986.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 660-511781. Elena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 674-747065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 631-896104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 602-805363.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 626-407923.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-052260.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 672-442318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 626-722291.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-244397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-743240.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-767696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-377184.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 943-901752 eta 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-713262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 631-611370.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 631-064707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-296879. Jacqueline.
- Neska ikasle elebiduna eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-686551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-226895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-358817.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-282203.
- Txoferra eskaintzen da ibilgailu guztietarako nazional mailako eta garraiolaria tituluekin lan egiteko. Tel. 633-181350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-124942.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-617818.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanetarako. Tel. 632-338445.

- Neska euskalduna eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da interna moduan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-886450.
- Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 602-057185.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da interna Elgoibarko baserri batean nagusia zaintzeko. Autoarekin hobe. Tel. 655-715544.
- Sukaldari-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Esperientzia. Tel. 661-700440.
- Emakume euskalduna behar da goizez etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-580932.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa, EGA, HABEren mailak, Osakidetzarako perflak... Tel. 620-608065.
- Reiki ikastaroa hasiko naiz ematen hilaren 21ean. Tel. 665-743217. Martin.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Autorako bost gupil salgai. 175/70R13 82T. Egoera onean. Liantekin. 200 euro. Tel. 658-719676. Enrike.
- Helduendako Conor-WRC-Roda Rirole bizikleta salgai. 10 koroako pinoia eta plater bi, Shimano pedalekin. Oso egoera onean. Merke. Tel. 634-425792.

6.2. Eman

- Spaniel Breton arrazako sei urteko bakurra oparitzen da. Lasaia eta esanekoa, baina ez du balio ehizarako. Tel. 943-740628.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Urrezko eraztuna, harri zuriarekin, galdu nuen hilaren 18an (eguztiena) Anbulatorioa eta Gratzinaren artean. Balio sentimental handia. Tel. 677-161259. Olatz.



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

MAIATZA-EKAINEKO DEIALDIA

AZTERKETAK: Eibar, Durango eta Arrasate

MATRIKULAK: Martxoaren 3tik 25era

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

ARRASATE:	Parlance Idiomaster	943 77 06 83 943 79 07 84
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR:	Anglo-American Link Idiomas	943 20 01 08 943 20 39 59
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELGOIBAR:	Kensington School of English Key Academia de Inglés	943 74 02 36 943 74 30 44
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79
DEBA:	Akabi North Street English	943 19 16 79 943 19 25 00
DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

AZTERKETAK ETA DATAK:

STARTERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 30
MOVERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 30
FLYERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 30
K.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Maiatzak 30
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 1era
P.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Maiatzak 30
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 1era
F.C.E. (For Schools)	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 13
	(Speaking)		Ekainaren 5etik 14ra
C.A.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 6
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 14ra
C.A.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 27
	(Speaking)		Ekainaren 19tik 28ra
C.P.E.	(Papers 1,2,3,4)	OSTEGUNA	Ekainak 11
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 14ra
P.E.T.	(Papers 1,2,3)	OSTIRALA	Maiatzak 29
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 1era
F.C.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 6
	(Speaking)		Maiatzaren 22tik Ekainaren 14ra
F.C.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 27
	(Speaking)		Ekainaren 19tik 28ra

Lillo eta Nieto
izango dituzu Euskaltelen
dendan (Errebal, 5),

EIBAR

martxoaren 4an, 19etan,
autografoak sinatzen

ZAIN IZANGO GAITUZU!



Babesle teknologikoa:



JEXUSMARI BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmentakainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera
ezkutuaren
bidea

◀ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)



"A" gizartea lortzeko

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara

www.ekonomiagardena.eus

[#ekonomiagardena](https://twitter.com/ekonomiagardena)



Gipuzkoa
BERRIA